# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia — Iruña, 2013ko ekainaren 28a — 74. ZK.

**A U R K I B I D E A**

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Sozietateen gaineko zergaren azterketari buruzko fiskalizazio-txostena, 2008-2010 ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

—Kontuen Ganberak enpresa pribatuei, familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei eginiko transferentzien esparru orokorrari buruz eta 2010 ekitaldiari dagokionez egindako fiskalizazio-txostena (39. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

# Sozietateen gaineko zergaren azterketari buruzko fiskalizazio-txostena, 2008-2010 ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik sozietateen gaineko zergaren azterketari buruz Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio-txostena, 2008-2010 ekitaldikoa, ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## Sozietateen gaineko zergaren azterketari buruzko fiskalizazio-txostena, 2008-2010 ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

### AURKIBIDEA

**I.** Sarrera (2. or.).

**II.** Sozietateen gainek zerga (3. or.).

II.1. Sozietateen gaineko zergaren ordainketa Nafarroan (3. or.).

II.2. Zerga Ogasuna eta sozietateen gaineko zerga (4. or.).

**III.** Helburua, norainokoa eta mugak (7. or.).

**IV.** Ondorio orokorrak eta gomendioak (8. or.).

IV.1. Zergaren kudeaketari buruz (8. or.).

IV.2. Zergaren azterketari buruz (8. or.).

**V.** Sozietateen gaineko zergari buruzko gogoeta orokorrak (11. or.).

V.1. Kudeaketa-prozedurari buruz (11. or.).

V.2. Zergaren azterketari buruz (12. or.).

V.2.1. Zergari gehitutako aitorpenaren laburpena (2008-2010) (12. or.).

V.2.2. Nafarroako araudiaren arabera aitortzen duten banakako enpresen kuoten azterketa (16. or.).

V.2.3. Nafarroako araudiaren arabera aitortzen duten banakako enpresa-taldeen kuoten azterketa (20. or.).

V.2.4. Nafarroako araudiaren arabera aitortzen duten banakako enpresen kenkarien azterketa (22. or.).

V.2.5. Ehuneko batean ordaintzen duten enpresak (25. or.).

V.2.6. 10.000 eurotik gorako kuota osoko banakako enpresa nafarren bilakaera (27. or.).

V.2.7. Kuota likidoaren azterketa (28. or.).

I. eranskina. Sozietateen gaineko zergaren aitorpen agregatuak (30. or.).

II. eranskina. Glosategia (36. or.).

### I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganberak 2011. urterako jarduera-planean sozietateen gaineko zergaren kudeaketari buruzko fiskalizazio-lan bat sartu zuen.

Lan hori auditore batez eta auditoriako bi teknikariz eta Nafarroako Kontuen Ganberako informatikako zerbitzuez osatutako talde batek egin du, erakunde horren beraren zerbitzu juridikoaren eta administratiboaren laguntzarekin.

Lana abenduan hasi zenez, Ganbera honek ezin izan zituen eskatutako datuak martxoa amaiera arte eduki, lan bereziak egin behar baitziren beharrekoa genuen informazio izugarria atera eta lantzeko formatu informatiko egokian emateko.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Zerga Ogasuneko langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzagatik.

Txostenak lau atal ditu, sarrera honez gainera, eta bi eranskin. Bigarren atalean Nafarroako zerga-sistemaren eta sozietateen gaineko zergaren laburpen txiki bat egiten da. Hirugarren atalean, lanaren helburua, norainokoa eta mugak jasotzen dira. Laugarren atalean, ondorio orokorrak eta gomendioak azaltzen dira, eta bosgarrenean zergari buruzko gogoeta orokorrak. Lehenengo eranskinak hainbat taula ditu, zergaren aitorpen atxikiei buruzko datu nagusiekin, eta bigarrenean, zergari loturiko kontzeptu nagusien glosategi bat aurkezten da.

## II. SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA

### II.1. SOZIETATEEN GAINEKO ZERGAREN ORDAINKETA NAFARROAN

Nafarroa XIX. mendea arte izan zen erreinua. 1839ko urriaren 25eko legeak berretsi egin zituen haren foruak eta 1841eko abuztuaren 16ko legearen bitartez arautu zen Nafarroaren integrazio politikoa eta ekonomikoa monarkian. Prozesu horretan, Nafarroak finantzaren eta zergaren alorreko ahalmenari eutsi zion. 1978ko Konstituzioak, lehenengo xedapen gehigarrian, babestu eta errespetatu egiten ditu Nafarroaren eskubide historikoak, eta aipatutako 1839ko legea indarrean dagoela dio xedapen ezeztatzailean. Eskumen historiko horiek Nafarroako Foru Araentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Legean daude bilduta.

1841. urteaz geroztik, Nafarroaren eta Estatuaren arteko harreman ekonomikoak 1877, 1922, 1941, 1969 eta azkena 1990. urtean izenpetutako Hitzarmen Ekonomiko deituen bitartez egituratu dira; azken hori da, hain zuzen ere, gaur egun indarrean dena.

Hitzarmenak bi alderdi arautzen ditu funtsean:

a) Zergaren alorreko harmonizazioa. Zeinaren bitartez ezartzen den zer administraziori ordaindu behar dioten subjektu pasiboek.

b) Nafarroak Estatuaren zama orokorrei egindako ekarpena.

Harmonizatzeko irizpideen laburpen gisa, eta txosten honi dagokionez, azpimarratu behar dugu Nafarroak bere zerga-erregimena edukitzeko, ezartzeko eta arautzeko ahalmena duela, nahiz eta Estatuari dagokion zeharkako zergak arautzea eta inportazioaren gaineko zergak arautzea eta kudeatzea. Gainera, Nafarroak Estatuarekin izenpetutako nazioarteko itunak edo hitzarmenak errespetatu behar ditu eta “Estatuaren gainerako lurraldean dagoen presio eraginkor orokor baliokidea ezarri eta edukiko du”.

Sozietateen gaineko zerga zuzeneko zerga bat da, eta izaera pertsonalekoa, pertsona juridikoen errentak zergapetzen dituena.

Harmonizazioaren arabera, sozietateen gaineko zergaren kasuan, Nafarroan ordaindu behar dute:

a) Helbide fiskala Nafarroan dutenek eta aurreko ekitaldiko eragiketa bolumena 7 milioitik gorakoa izan ez dutenek.

b) Nafarroaren lurraldean bakarrik lan egiten dutenek, edozein dela ere horien helbide fiskala.

Bi lurraldeetan diharduten subjektu pasiboen eta aurreko ekitaldiko eragiketen guztizko bolumena zazpi milioitik gorakoa dutenen kasuan, bi administrazioei ordainduko diete, lurralde bakoitzean egiten duten eragiketa bolumenari dagokion proportzioan (kopuru erlatiboa).

Nafarroako araudia izango da aplikatzekoa Nafarroako Foru Komunitatean baino ordaintzen ez dutenen kasuan. Bi administrazioei ordaintzen dietenen kasuan, helbide fiskaleko administrazioari dagokion araudia aplikatuko da. Edonola ere, helbide fiskala Nafarroan badago eta aurreko ekitaldian eragiketen ehuneko 75 baino gehiago erregimen komuneko lurraldean egin badute, Estatuaren araudiaren arabera ordainduko dute.

Kontuan hartuz gero, alde batetik, sozietate-taldeek hainbat berezitasun dituztela zerga-erregimenari dagokionez eta Estatuko Ogasunak berariazko inprimakiak prestatu dituztela, eta beste aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) Ekonomia Itunaren sistema indarrean dagoela, Hitzarmenaren antzekoa, zergaren aitorpena, praktikan, era hauetara egin liteke:

- Banakako sozietateen Nafarroako araudia.
- Talde fiskalen Nafarroako araudia.
- Banakako sozietateen Estatuko araudia.
- Talde fiskalen Estatuko araudia.
- Banakako sozietateen EAEko araudia.
- Talde fiskalen EAEko araudia.

Talde fiskalen kasuan, horiek osatzen dituzten sozietateek ez dituzte zergak banaka ordaintzen, nahiz eta aitorpena aurkeztu behar duten.

Nafarroak sozietateei dagokien zergak aurreko sistema horietako edozeinen bitartez biltzen badu ere, ordainketa Nafarroako araudiaren arabera

baino egiten ez denean gauzatzen da kudeaketarako eta ikuskaritzarako gaitasuna.

II.2. ZERGA OGASUNA ETA SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA

Sozietateen gaineko zergaren kudeaketa Ekonomia eta Ogasun Sailak egiten du, "Nafarroako Zerga Ogasuna" erakunde autonomoaren bitartez, horrek egiten baitu zerga guztien kudeaketa.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, zuzendari kudeatzailearen eta Nafarroako Zerga Ogasunaren Plangintza eta Kontrolerako zuzendariaren zuzendaritzapean, honako hauek dira horren kudeaketaz arduratzen diren unitateak:

• Zuzeneko Tributu, Zehapen eta Errekerimenduen Zerbitzua eta horren pean Ez-egoiliarren Errentaren eta Sozietateen Gaineko Zergen Atala eta Zehapen eta Errekerimendu Atala. Lehenak ogasuneko hiru teknikari, ogasuneko hiru kudeatzaile eta administrazioko bulegari bat ditu, eta aitorpenen kudeaketaz arduratzen da, "enpresa handienena" izan ezik, hurrengo paragrafoan azaltzen baitira. Bigarren atalean ogasuneko bost kudeatzaile eta administrazioko bi bulegari daude, eta edozein zergari buruzko aitorpen aurkeztu gabeez eta edonolako zerga-zigorrak ezartzeaz arduratzen da, Ikuskaritza Zerbitzuari agindutakoak eta zerga bereziekin lotura dutenak izan ezik.

• Zeharkako Tributuen eta Enpresa Handien Zerbitzua. Horren mende dago Enpresa Handien Atala, ogasuneko hiru teknikari, ogasuneko hiru kudeatzaile eta administrazioko bi bulegari dituena, eta "enpresa handi" deituak kudeatzen ditu. Horren barruan sartzen dira, funtsean, lurralde bakoitzean egindako eragiketa bolumenaren arabera hainbat zerga-administraziori ordaindu behar dioten ordaintzaileak, zerga kontsolidazioaren erregimenaren arabera, eta bederatzi milioi eurotik gorako fakturazioa dutenak.

• Tributu Ikuskapenerako Zerbitzua. Zerbitzu horrek zerga guztien ikuskaritzak egiten ditu, eta, hortaz, baita sozietateen gaineko zergari dagozkionak ere.

• Tributuen Arloko Informazio Sistemen Zerbitzua. Zerbitzu hori arduratzen da Ogasunean dagoen informazioa mantentzeaz eta koordinatzeaz, eta baita zerga guztiei buruzko informazioa hartzeaz eta zorduntzeaz.

• Dirubilketa Zerbitzua. Ogasuneko dirubilketaz arduratzen da.

Hau da, sozietateen gaineko zergaren kudeaketaz bi zerbitzu arduratzen dira, enpresaren tamainaren arabera. Sozietateen zerga-informazioa erregistratzeko eta zorduntzeko zereginak, dirubilketa, ikuskaritza eta errekerimenduak zerga guztietarako unitate berezi batzuek egiten dituzte.

Urtero, 18.000 aitorpen inguru aurkezten dira, eta horiek, aurretik adierazi bezala, hainbat inprimaki eta araudiren arabera egiten dira, banakako enpresak edo enpresa-taldeak diren kontuan hartuta eta Nafarroako, EAEko edo erregimen orokorreko araudiari dagokien kontuan hartuta.

Zerga-onurak dira zergaren egituratik beretik desbideratzen diren salbuespen eta hobariak, beherapenak eta arintzeak eta errenta edo jarduera jakin batzuen aldeko diskriminazioak dira, helburu ekonomiko edo sozial jakinak lortzeko helburuarekin.

Hau da, Ogasunak teorian lortu beharko lituzkeen diru-sarrera txikienei dagokio.

Azpimarratu beharra dago 2005 eta 2010 urteen bitartean zerga bidezko dirubilketatzat hartu direla zerga-onuren parte bat, eta zenbateko horiek gastuetan transferentzia gisa eta zerga bidezko diru-sarreretan aitortutako eskubide gehiago gisa kontabilizatuko dira.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa kontuan hartuta, sozietateen gaineko zergari dagozkion diru-sarreren aurrekontuaren betearazpenaren bilakaera honako hau da:

| | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Sozietateen gaineko zerga | 268.361.846 | 301.399.879 | 299.017.087 | 337.084.487 | 380.698.911 | 508.614.540 | 589.664.073 | 419.967.528 | 421.116.927 | 177.482.535 |
| Zerga-onurak | | | | | 91.870.425 | 139.937.575 | 188.015.351 | 162.456.035 | 149.954.999 | 103.547.881 |
| Guztira | 268.361.846 | 301.399.879 | 299.017.087 | 337.084.487 | 472.569.336 | 648.552.115 | 777.679.424 | 582.423.563 | 571.071.926 | 281.030.416 |



Ikus daitekeenez, goranzkoa da 2007. urtea arteko, eta urte horretatik aurrera, berriz, beherazko joera nabarmena du, ekonomia-krisiarekin bat.

Azpimarratu beharra dago:

• "N" ekitaldiari egotzitako aurrekontu dirusarrerak, oinarrian, "N" ekitaldiari eta "N-1" ekitaldiaren aitorpenari dagozkion atxikipenak eta konturako ordainketak.

• Azterketen, ikuskaritzen eta abarren ondoriozko aitorpen-zuzenketak horiek egiten diren urteko aurrekontuari egozten zaizkio.

• Zergak harmonizatzeko Hitzarmen Ekonomikoak finkatutako konexio-puntuen ondorioz, aldeak sor litezke benetako diru-sarreren eta zerga-administrazio bakoitzari egozten zaizkion aitorpenen artean.

Hori guztia dela eta, ez dago korrespondentziarik urte bateko aurrekontuari egotzitako dirusarreren eta ekitaldi horretako aitorpen agregatuaren artean.

Beste alde batetik, beharrezkoa da adieraztea zergen kudeaketa fitxategiak "fitxategi biziak" direla. Horrek esan nahi du haren balioak aldatu egiten direla egunetik egunera, zerga-kudeaketan sortzen diren aldaketen ondorioz. Edonola ere, izapidetutako aitorpenen bolumenetik abiatuta, aldaketa horiek ez dira esanguratsuak datu orokorrei dagokionez.

Honako hauek dira enpresa motaren arabera aldatzen diren karga-tasak:

| | | |
|---|---|---|
| A | Tasa orokorra | % 30 |
| B | Enpresa txikiak | % 27 |
| C | Enpresa txikiak, negozio-zifraren zenbateko garbia < 1.000.000 dutenak | % 20 |
| D | Aseguru-mutualitateak, mailegu-kooperatibak, gizarte-aurreikuspeneko entitateak, elkarren bermerako sozietateak, sindikatuak, enpresa-elkarteak, etab. | % 25 |
| E | Zerga bidez babestutako kooperatibak | % 17 |
| F | Fundazioak | % 10 |
| G | Kapital aldakorreko inbertsio-elkarteak, inbertsio finantzarioko funtsak, higiezinetan inbertitzeko sozietateak eta higiezinetan inbertitzeko funtsak | % 1 |
| H | Pentsio-funtsak | % 0 |

Aitorpenen kudeaketa-prozesuan, 30 egoera baino gehiago topa ditzakegu, besteak beste "zordundu berria", "bikoiztua", "berrikusten", ""zuzena", "ikuskaritzara bidalia", etab. eta bi datu mota: aitortuak eta berrikusiak.

Ondoren, zergaren funtzionamenduaren laburpen txiki bat egingo dugu, txostena ulertzen lagunduko diguna, gainera:

• Enpresaren kontularitza-emaitza kontularitzako datuak zerga-datuekin adosteko aukera ematen duten hainbat kontzepturen bitartez zuzentzen da; era horretara, aurreko urteetako likidazio-oinarri negatiboak kentzen zaizkion zerga-oinarria lortzen da eta aurretiazko zerga-oinarria lortzen da.

• Horri inbertsioetarako erreserba bereziaren ondoriozko murrizketa aplikatzen zaio, eta zergaoinarria lortzen dugu.

• Zerga-oinarriari zama-tasa aplikatzean, kuota osoa lortzen da.

• Kuota osoari ezarpen bikoitzagatiko (barnekoa edo nazioartekoa) kenketak eta inbertsioen ondoriozkoak, enpleguaren sorkuntza eta I+G+B gastuak aplika dakieke, eta horrela kuota likidoa lortzen da.

Zergak Nafarroan duen funtzionamenduaren laburpen hau aldatu egiten da Estatukoaren aldean, honako eskema honetan ikus daitekeen bezala:

| Nafarroa | Estatua |
|---|---|
| Kontularitza-emaitza | Kontularitza-emaitza |
| +/- kontularitza-doitzeak | +/- kontularitza-doitzeak |
| Zerga-oinarria | Zerga-oinarria, oinarri negatiboak konpentsatu baino lehen |
| - Aurreko urteetako oinarri likidagarri negatiboak | - Aurreko urteetako oinarri likidagarri negatiboak |
| Aurretiko oinarri likidagarria | Zerga-oinarria |
| - Inbertsioetarako erreserba bereziengatiko murrizketa | |
| Oinarri likidagarria | Zerga-oinarria |
| Kuota Osoa = oinarri likidagarria x zam-tasa | Kuota Osoa = zerga-oinarria x zama-tasa |
| - Ezarpen bikoitzagatiko kenkariak eta hobariak | - Ezarpen bikoitzagatiko kenkariak eta hobariak |
| - Inbertsioagatiko kenkariak eta lanaren sorkuntza eta I+G+Bko gastuak | - Inbertsioagatiko kenkariak eta lanaren sorkuntza eta I+G+Bko gastuak |
| Kuota likidoa | Kuota likidoa |

Kontzeptuen izenen arteko alde horiek berdintzera eraman gaituzte, eta txostenean, oro har, Nafarroako araudiaren kontzeptuei jarraitu zaie.

Txosten honi dagokionez, zerga efektibotzat hartzen dugu kuota likidoa eta oinarri likidagarria konparatzean sortzen den tasa.

Sozietateak zergak hainbat administraziotan ordainduz gero, kuota horri Nafarroako administrazioari dagokion partea kalkulatzen zaio (kopuru erlatiboa).

## III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Txosten honen helburua honako hau da:

• Zergaren kudeaketa aztertzea. Horretarako, Nafarroako Lurralde Ogasunak egiten dituen izapide administratiboak berrikusi dira. Zehazki, nola jasotzen diren aitorpenak, zer egiaztapen egiten diren, zer erreklamazio, etab.

• Zerga aztertzea. Aitorpenetatik abiatuta, hainbat kalkulu egin dira hainbat aldagairen jokabidea eta bilakaera ezagutzeko aukera eman digutenak, hala nola, aitorpen kopurua eta aitorpen motak, kuoten zenbatekoa, kenkarien zenbatekoa eta lortutako datuen arteko konparazioak.

Txostenari sozietateen gaineko zergaren kudeaketa osatzeko edo hobetzeko egokitzat hartzen diren gomendioak erantsi zaizkio.

Gure lana egiteko, 2008ko, 2009ko eta 2010eko sozietateen gaineko zergaren aitorpen guztietan dauden hainbat datu eskatu dizkiogu Nafarroako Zerga Ogasunari.

Eskatutako datuak emateko, Nafarroako Zerga Ogasunak tresna informatiko bat egin zuen, eskatutako informazioa gure lana egiteko aukera ematen zuen formatuan emateko.

Azterketa horiek zerga-oinarri positiboko aitorpenen gainean egin dira, izan ere, aitorpen guztiak erabiliko bagenitu, portzentajeak distortsionatu egingo lirateke, kuotak aitorpen positiboetatik baino ez baitira lortzen.

Lana egoera hauek mugatu dute:

• Zergen fitxategiak "fitxategi biziak" dira, eta hori dela eta, balioak etengabe alda daitezkeenez, lortutako datuak une jakin bati dagozkie. Edonola ere, oro har, gerta litezkeen aldaketek ez dute adierazgarriak izan behar.

• Aurrekontu-egozpenaren irizpideak eta Estatuarekiko Ekonomia Hitzarmenaren ondoriozko zergen harmonizazioaren lotura-puntuen ondorioak direla eta, ia ezinezkoa da aurrekontu-datuak eta zergaren aitorpen erantsien datuak alderatzea.

• Erabilitako datu-bolumen handia denez eta hori aztertzeko beharrezkoak diren intsuldaketa informatikoen ondorioz, hainbat alde agertu litezke.

• Zergaren kudeaketaren konplexutasuna, honako aldagai hauek direla eta:

a) Aitorpenean sartzen den informazio-bolumena, eta, zenbaitetan, ordaindu beharreko zenbatekoari eragiten ez dioten datuak garbitu gabe egotea.

b) Aitorpen bat hainbat egoeratan egon liteke (zuzena, berrikusteko, aldeekin, jakinarazteko, alegazioen zain, etab.), eta horren ondorioz, zenbait kasutan, aitortutako edo berrikusitako datua hartu behar dugu kontuan, baieztatu gabe zer datu den zuzena.

c) Aitorpenen artean beti bat ez datozen kontzeptuak alderatzeko premia, enpresa-motaren edo aplika daitekeen legediaren arabera.

Muga horiez gainera, badaude beste hainbat gai, berez muga bat ez badira ere, egindako lanaren ondorioak baloratzeko oso kontuan hartu behar direnak:

• Aztertutako epean, 2008-2010, ekonomia-krisiak eragina izan du sozietateen gaineko zergan, murriztu egin baita etekinak izan dituzten enpresen kopurua eta kuoten zenbatekoa. Hori dela eta, kontuan hartu behar dira azterketak krisi garai honetan aurkeztutako aitorpenen gainean egin direla.

• Kontuan hartu behar da, halaber, Nafarroako araudiaren arabera aurkeztutako banakako aitorpenen kasuan izan ezik, gainerakoan aitorpenak ez direla oso ugariak, eta, horregatik, aitorpen gutxi batzuen gorabeherak modu adierazgarrian eragin diezaiokete maila horretako datuei.

• Diru-ezarpen bikoitzagatiko kenkaria errenta batek zerga bat bi aldiz ez ordaintzeko ezartzen da. Bat sortzen duen enpresagatik eta bigarrena dibidenduak jasotzen dituen enpresagatik. Dibidendu horiek enpresaren etekinak eta likidazio-oinarria handitzen dutenez, “ordainketa bikoitza” kuotaren kenkariaren bidez zuzentzen da. Aitorpenetatik ondorioztatzen diren datuekin egin ditugu kalkuluak, eta zenbait kasutan, tasa efektiboaren kalkulua egiteko, ordainketa bikoitz hori kontuan hartuta lortuko litzatekeen emaitzaren estimazioa egin dugu.

Sektore publikoaren auditoriari dagokionez, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko eta Kontuen Ganbera honek bere fiskalizazio-eskuliburuan garaturiko printzipioei eta arauei jarraituz egin da lan hau, eta azterlanaren helburuen eta lanaren berezitasunaren arabera beharrezkotzat jotako egokitzapenak egin dira.

## IV. ONDORIO OROKORRAK ETA GOMENDIOAK

Epigrafe honetan aurkezten ditugu egindako lanetik ondorioztatzen diren ondorio eta gomendio nagusiak, aurreko epigrafean aipatutako mugak kontuan hartuta.

### IV.1. ZERGAREN KUDEAKETARI BURUZ

• Sozietateen gaineko zergan, urteko 18.000 aitorpen inguru kudeatzen dira, eta horietatik herenak gutxi gorabehera kuota positiboa du.

• Aitorpen horiek, Hitzarmen Ekonomikoan hitzartutakoaren arabera, araudi desberdinen arabera aurkezten dira (nafarra, estatala edo EAE-koa), eta Foru Komunitateak du nafar araudiaren arabera ordaintzen dutenen gaineko gaitasun legegilea eta ikuskatzailea.

• Oso kudeaketa mekanizatua duen zerga da, lehenengo egiaztapen informatizatuaren ondoren, berrikusketan lehentasuna ematen zaie berrikusteko egoeran gelditzen diren aitorpenei, eta, giza baliabideen arabera, aldeekin onartutako aitorpenak aztertzen dira. Erreklamatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko lanak zerga guztietarako unitate bereziek egiten dituzte.

• 2008-2010 urteetan aitortutako aurrekontu-eskubideak, 420 milioitik 177 milioira igarotzen direnak, zein erantsitako aitorpenetik ondorioztatuak (horien kuota likidoa 352 milioitik 212 milioira igarotzen da) beheraldi handia dute krisi ekonomikoaren ondorioz.

### IV.2. ZERGAREN AZTERKETARI BURUZ

• Aztertutako aldian honako hau ikusi da:

a) Aitorpena aurkeztu duten sozietate kopuruak eta kuota likido positiboa dutenen kopuruak behera egin duela.

b) Kuota likidoa 2008an 352 milioikoa izatetik 2010ean 212 milioikoa izatera igaro dela eta aitortzen duten sozietateen heren batek emana dela.

c) 200 enpresa inguruk kuota likidoaren ehuneko 70 ematen dute.

d) Batez besteko tasa ehuneko 27koa da, baina tasa efektiboa ehuneko 15ekoa da.

e) Enpresa-taldeen tasa efektiboa enpresa indibidualena baino nabarmen txikiagoa da.

• Zergak Nafarroako araudiaren arabera ordaintzen dituzten banakako enpresetan arreta jarrita (kuota likidoaren hiru laurden inguru hartzen dutenak) honako hau ikusi dugu:

a) Inbertsioetarako erreserba bereziaren ondoriozko oinarriaren murriztapena, 2008-2010 aldian honakoa izan da:

| Urtea | Aitorpen kopurua | Zenbatekoa (milioiak) |
|---|---|---|
| 2008 | 130 | 39 |
| 2009 | 80 | 28 |
| 2010 | 73 | 27 |
| Guztira | | 94 |

Kuotan duen ondorio teorikoa zenbateko hauen ehuneko 30ekoa izango litzateke. Hau da, zerga-etekina kenkari gisa ezarri izan balitz, oinarriaren murrizketa ekarri beharrean, 28,2 milioi inguru handitu beharko lirateke kenkari horiek, aldi horretan.

b) 70 enpresa inguruk ematen dute maila horretako kuota likidoaren erdia.

• Bestelako jokabidea dute epe horretan banakako enpresen eta zergak Nafarroako araudiaren arabera ordaintzen duten enpresa-taldeen artean. Lehenengoek kuota likidoan duten zama bederatzi puntu murriztu badute ere, taldeek zortzi puntu egin dute gora.

• Nafar araudiaren arabera aitortzen duten bakarkako sozietateentzat, aldi horretako kuota osoa 955 milioikoa da, kenkariak guztira 350 milioikoak eta kuota likidoa 605 milioikoa. Kenkari nagusiak kontzeptu hauei dagozkie:

Ordainketa bikoitzak: 119 milioi.

Inbertsioak: 79 milioi.

I+G+B: 52 milioi.

Enpleguaren sorkuntza: 26 milioi.

Inbertsioak erregimen berezietan: 9 milioi.

• Nafar araudiaren arabera aitortzen duten elkarteentzat, aldi horretako kuota osoa 144 milioikoa da, kenkariak guztira 108 milioikoak dira eta kuota likidoa 36 milioikoa. Kenkari nagusiak kontzeptu hauei dagozkie:

Nazioarteko ordainketa bikoitza: 39 milioi.

Erregimen bereziak: 42 milioi.

• Aztertutako kasuetan, kenkariak oso sakabanatuta daude. Era horretara, zenbait enpresek, kenkarien ondorioz, zerotik hurbileko tasa efektiboetan ordaintzen dituzte zergak, eta beste batzuek, berriz, ez dute ia kenkaririkk erabiltzen eta beren tasa efektiboa tasa positibora hurbiltzen da.

• Aztertutako hiru ekitaldietako bati dagokion zenbait zerga eta zenbait zerga-neurri aldatzeko Foru Legearen proiektuaren memorian aipatutako proiektu horren kostuaren balioespenari buruzko txosten bat erantsi da. Txosten horretan, neurriek diru-bilketan duten ondorioak nahiko zehatz baloratzeko zailtasuna aipatzen da, honako arrazoi hauek direla eta:

“Zenbaitetan, dagokion zerga likidatzeko mekanikarekin duen harreman berezia dela eta, ez dago aukera materialik zerga-onura bat handitzeak edo txikitzeak diru-bilketan izango duen ondorioa kalkulatzeko, ezta gutxi gorabehera ere.

Beste zenbaitetan, ezin da zehaztu zer jokabide izango duten subjektu pasiboek zerga-pizgarri jakin bat handitzearen edo salbuespen bat zabaltzearen ondorioz.”

Edonola ere, urte horretan PFEZari eta Ondasunari eragiten dioten diru-bilketan eragin gehien dituzten neurrien estimazio bat egin da.

Hiru urte horietan Nafarroako banakako sozietateen oinarri likidagarri negatiboak eta horiek dagozkien sozietateen kopurua honako hau da:

| Urtea | Oinarri negatiboak (milioiak) | Sozietate kopurua |
|---|---|---|
| 2008 | 996 | 7.170 |
| 2009 | 1.040 | 8.009 |
| 2010 | 824 | 7.825 |
| | 2.860 | |

Hau da, hiru urte horietan 2.860 milioi oinarri negatibo sortu dira, datozen urteetako oinarriak murriztu ahal izango dituztenak.

• Urte horietan beretan konpentsatutako oinarriak honakoak izan dira:

| Urtea | Oinarri konpentsatuak (milioiak) | Sozietate kopurua |
|---|---|---|
| 2008 | 117 | 2.521 |
| 2009 | 140 | 2.518 |
| 2010 | 124 | 2.877 |
| | 381 | |

Hau da, hiru urte horietan 381 milioi konpentsatu dira, eta aurreko urteetako oinarri negatiboei dagozkie.

• Nafar araudiaren mendeko enpresa-taldeen kasuan, oinarri negatiboak eta aurreko oinarri negatiboen konpentsazioen batura eta inbertsioetarako erreserba berezietarako zuzkiduraren ondoriozko murrizketa honako hauek izan da:

| Urtea | Oinarri negatiboak (milioiak) | Oinarrien konpentsazioa eta inbertsioen erreserbaren murrizketa |
|---|---|---|
| 2008 | 39 | 8 |
| 2009 | 72 | 28 |
| 2010 | 68 | 54 |
| | 179 | 90 |

Hau da, nafar taldeek etorkizunean 179 milioi murriztu ahal izango dituzte oinarriak, eta hiru ekitaldi horietan 90 milioi murriztu dituzte oinarriak, oinarrien konpentsazioa eta inbertsioetarako erreserba direla eta.

• Epigrafe honekin amaitzeko, alderdi orokor hauek azpimarratu nahi ditugu:

a) Ezin esan daiteke jarduera ekonomikoa sustatzeko erabilitako zer sistema den egokiena (dirulaguntza zuzenak edo zerga-pizgarriak). Baten edo bestearen erabilera helburuen araberakoa izango da, eta baita aplikatzeko aukera praktikoen araberakoa ere. Edonola ere, eta bereziki krisi garaietan, kontuan hartu behar da enpresek zerga-pizgarriez baliatu ahal izateko ezinbestekoa dela horien emaitzen zenbatekoa zerga-etekinak deskontatzeko adinakoa izatea.

b) Zerga-etekinen zenbatekoen eta horien sakabanaketaren ondorioz, komenigarria da horiek ezartzearekin batera informazioa ematea, zer helburu bilatzen diren ezagutzeko eta horien ondorioak neurtzeko.

c) Nafarroatik kanpoko araudiaren menpe dauden eta zifra erlatiboa duten enpresen tributazioaren eraginez, Nafarroan egin ez diren zenbait eragiketek Foru Komunitatearen diru-bilketari eragiten diete.

d) Nafarroak zergen eremuan dituen eskumenak direla eta, bereziki zuzeneko zergak arautzeari eta kudeatzeari dagokionez, zerga-politika ekonomia-krisia konpontzen edo arintzen saiatzeko aukera du.

Egindako lanaren ondorioz, honako hau gomendatzen dugu:

• *Aurkeztutako aitorpenen berrikusketa sustatzea, bai horiek aurreratuz bai "onartua aldeekin" egoeran gelditzen direnen berrikusketak ugalduz.*

• *Zerga-onurak onartzearekin batera (kenkariak kuota osoaren gainean) lortu nahi diren helburuak zehaztu behar dira eta baita adierazle batzuk ere, aurreko helburuak lortu diren neurtzeko aukera emango dutenak.*

• *Sozietateen gaineko zergaren zerga-onuren eragina aztertzeko eta baloratzeko aukera emango duen sistematika bat finkatzea hori ezartzean aurreikusitako helburuei dagokie. Nafarroako Lurralde Ogasunean esandakoaren arabera, hainbat jarduera jarri dira martxan bide horretatik.*

*Gai horri dagokionez, bereziki kontuan hartu behar da zerga-onurek enpresa edo enpresa-taldeetan eragiten dituzten emaitzak haien bitartez lortu nahi ziren politika ekonomikoaren helburuei erantzuten dieten. Bestalde, kontuan hartu behar da zerga-onura horiek baldintzak betetzen dituzten enpresen artean zuzen banatzen diren, enpresek lortzen dituzten etekinek baldintzatzen baitituzte.*

## V. SOZIETATEEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO GOGOETA OROKORRAK

Epigrafe honetan aurreko epigrafeko ondorio orokorrak argitu eta zabalduko ditugu, hobeto ulertzeko xedearekin.

### V.1. KUDEAKETA-PROZEDURARI BURUZ

Aitorpenak telematikoki aurkezten dira. Izapideak errazteko, Nafarroako Gobernuak laguntzarako programa bat sartu du bere "webgunean". Programa horrek Merkataritza Erregistroan aurkeztutako datuak inportatzeko aukera ematen du.

Sozietateen gaineko zergaren aitorpenak, zerga-aitorpen guztiak bezala, Zerga Informazio Sistemen Zerbitzuan jasotzen dira, eta han egiten da lehenengo egiaztapena, hau da, IFZ egiaztatzen da eta baita aitorpen bikoiztuak dauden ere.

Beste ogasunetako ereduekin aurkezten dira aitorpenak, taulatxoen zenbakiak edo kontzeptuak ez datozenez beti bat, Nafarroako eredura egokitu behar dira.

Ondoren, kudeaketaren ardura duten zerbitzuek (zuzeneko zergena eta enpresa handiena) lehenengo azterketa teknikoa egiten dute; azterketa hori automatizatuta dago aitorpenen ehuneko ehunean.

Azterketa tekniko horretan aitorpenaren beraren datuen koherentzia aztertzen da, eta beste aitorpen mota batzuetako datuekin (atxikipenak, kontura egindako ordainketak) eta aurreko aitorpenekin kontrastatzen da, eta orobat aztertzen da baldintza jakin batzuk betetzen diren.

Azterketa-programa hori urtero aldatzen da, kontrol berriak sartzen direlako edo aurretik daudenak aldatzen direlako, aurreko urteetako emaitzen arabera.

Azterketa horren ondoren, aitorpenak hiru motatan banatzen dira:

• 710 Egoera: Zuzena. Ez dago alderik.

• 610 Egoera: Aldeekin amaituak. Alde txikiak daude eta onartu egiten dira, nahiz eta berrikusi litezkeen.

• 320 egoera: Berrikusteko. Alde nabarmenak gertatzen dira eta aztertu egin behar da.

• 020 Egoera: Bikoiztuak.

Azterketa horiek Nafarroako Zerga Ogasuneko teknikariek egiten dituzte, eta likidazioak eta, hala badagokio, zigorrak eragin ditzakete. Zenbait kasutan, aldeen arabera, aitorpenak ikuskaritzara bidaltzen dira.

Garrantzizkoa da adieraztea aitorpen baten gainean egindako jarduera guztien lekukotasuna erregistro informatikoetan geratzen dela.

Data zehatz batean, 2012ko urtarrila (esan bezala zerga-fitxategiak "biziak direlako"), aztertu zen zer egoeratan zeuden hasierako azterketaren ondoren 610 egoeran (amaituta aldeekin), 320 egoeran (aztertzen) eta 020 egoeran (bikoiztua) zeuden aitorpenak.

Taula honetan azaltzen da banaketa:

| | 2010 | | | 2009 | | | 2008 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | EEH(*) | EH(*) | Guztira | EEH | EH | Guztira | EEH | EH |
| 610.– Aldeekin amaitua | 3.442 | 3.380 | 62 | 3.992 | 3.881 | 111 | 4.063 | 3.958 | 105 |
| 320.- Berrikusteko | 360 | 255 | 105 | 365 | 265 | 100 | 350 | 237 | 113 |
| 020.- Bikoiztua | 635 | 557 | 78 | 760 | 654 | 106 | 996 | 861 | 135 |
| | 4.437 | 4.192 | 245 | 5.117 | 4.800 | 317 | 5.409 | 5.056 | 353 |

| Egoera 2012ko urtarrilean | 2010 | 2009 | 2008 |
|---|---|---|---|
| Bikoiztua | 140 | 182 | 160 |
| Berrikusteko | 36 | 39 | 4 |
| Aldeekin amaitua | 3.409 | 3.609 | 3.618 |
| Zuzen amaitua | 594 | 752 | 969 |
| Beste egoera batzuk | 258 | 535 | 658 |
| | 4.437 | 5.117 | 5.409 |

(*) EH: Enpresa handiak. EEH: Ez enpresa handiak

Datu horietatik ondorioztatzen da lehentasuna ematen zaiola aitorpen bikoiztuak eta berrikusteko daudenak egiaztatzera, nahiz eta ez den urtean amaitzen, eta oso aitorpen gutxi daude aldeekin amaitutako egoeran daudenak eta egiaztatzen direnak.

Zergak ez-betetzeagatiko erreklamazioa, sozietateen gainekoa barne, Zigorrak eta Errekerimendua atalak egiten du. Ez-betetzeak modu automatikoan sortzen dira, aitorpenak nahitaezko zergen erroldarekin eta enpresa handienekin alderatuta.

Ez-betetzearen kudeaketaz atal hori bera arduratzen da, GEDESA enpresa publikoaren laguntzarekin; azken hori, enpresa-sektore publikoa berriro antolatu ondoren, TRACASA sozietate publikoaren barruan sartu da. GEDESAk Nafarroako Gobernuarentzat bakarrik lan egiten du, dagokion aginduaren bitartez. Aztertutako garaian, honako zerbitzu hauekin jarduten zuen lankidetzan: Dirubilketa Zerbitzua (lan gehiena); Tributu Ikuskapenerako Zerbitzua; Zergadunari Laguntza eta Argibidea Emateko Zerbitzua; Zuzeneko Tributu, Zehapen eta Errekerimenduen Zerbitzua; eta Tributuen Arloko Informazio Sistemen Zerbitzua. 2010. urteaz geroztik, fakturazioa lan-orduen arabera egiten da, onartu baitzen aginduak kostu-prezioan fakturatu behar direla. Nafarroako Gobernuaren aginduei buruzko txosten bat egiten ari Kontuen Ganbera da, eta horretara joko dugu.

Errekerimenduei erantzuten ez bazaie, arauhaustea gertatzen da, eta hori zigortu egin liteke.

Erreklamazioak zergadunek egiten dituzte, beraz, ezin mugatu litezke zerga jakin baten erreklamazioak. Zerga-zigorren kasuan, aurrekontu-informazioak zenbatekoa ematen du, baina ez zergaz zerga bereizteko aukera.

Azken urteetan, zigorren zenbatekoak, kontularitzako datuen arabera, honakoak izan dira:

(milioitan)

| | Aitorturiko eskubideak | Diru-bilketa garbia |
|---|---|---|
| 2008 | 13,3 | 5,8 |
| 2009 | 27,3 | 6,9 |
| 2010 | 11,0 | 3,7 |

Nafarroako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboari eskatu diogu azken urteetan sozietateen gaineko zerga dela-eta jarritako helegiteei buruzko informazioa.

Haien erantzunaren arabera, 2007-2010 urteetako sozietateen gaineko zergen artean 29 erreklamazio jarri dira, eta erantzuna eman zenean egoera honetan zeuden: 10 atzera botata; 3 onartuta; 3 onartu gabe; eta 13 ebazpenaren zain.

Ondoriozta daiteke, beraz, Auzitegiaren aurrean sozietateen gaineko zergari egindako erreklamazio kopurua txikia dela.

Laburbilduz, oso kudeaketa mekanizatua duen zerga baten aurrean gaude; lehenengo egiaztapen informatizatuaren ondoren, berrikusketan lehentasuna ematen zaie berrikusteko egoeran gelditzen diren aitorpenei eta, giza baliabideen arabera, aldeekin onartutako aitorpenak aztertzen dira. Erreklamatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko lanak zerga guztietarako unitate bereziek egiten dituzte.

## V.2. ZERGAREN AZTERKETARI BURUZ

### V.2.1. Zergari gehitutako aitorpenaren laburpena (2008-2010)

I. eranskinean Nafarroako Zerga Ogasunean aurkeztutako aitorpen gehituen bilakaeraren laburpen bat aurkezten da, modalitateen arabera (Nafarroako legedia, estatukoa edo EAEkoa, eta banakako aitorpenak edo enpresa-taldeenak). Gehitutako aitorpen horietan zerga-oinarri positiboa dutenen datuak baino ez dira sartzen.

1. 1. 1.A taulan urte bakoitzari dagokion guztizko aitorpen kopurua eta zerga-oinarria, kuota osoa eta kuota likido positiboa dutenen kopurua aurkezten da, horiek baitira zergaren diru-sarrerak egiten dituztenak, eta horiek Ogasunean aurkez daitezkeen aitorpen moten arabera daude banatuta; eta orobat aurkezten dira oinarri eta kuota horien guztizko zenbatekoak eta kuota osoek eta likidoek zerga-oinarriari buruz zer ehunekoa osatzen duten.

| | | Nafarroa | | | Estatua* | | | EAE | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Banakakoa | Kooperatibak | Taldeak | Banakakoa | Kooperatibak | Taldeak | Banakakoa | Kooperatibak | Taldeak | Guztira | Zenbatekoa | Oinarri likidagarriaren gaineko % | oinarri likidagarriaren gaineko batez besteko % |
| 2008. urtea | Aitorpenak guztira | 17.173 | 517 | 72 | 458 | 12 | 213 | | | | 18.445 | | | |
| | Oinarri likidagarriko aitorpenak | 7.408 | 327 | 41 | 293 | 7 | 131 | | | | 8.207 | 2.215.773.600 | | |
| | Kuota osoa positiboa duten aitorpenak | 7.378 | 299 | 41 | 267 | 7 | 124 | | | | 8.116 | 610.000.711 | % 28 | |
| | Kuota likidoa positiboa duten aitorpenak | 6.254 | 265 | 24 | 250 | 7 | 107 | | | | 6.907 | 351.872.137 | % 16 | |
| 2009. urtea | Aitorpenak guztira | 16.961 | 509 | 83 | 424 | 11 | 232 | | | | 18.220 | | | |
| | Oinarri likidagarriko aitorpenak | 6.244 | 307 | 38 | 261 | 5 | 133 | | | | 6.988 | 1.875.942.098 | | |
| | Kuota osoa positiboa duten aitorpenak | 6.199 | 266 | 38 | 237 | 5 | 121 | | | | 6.866 | 501.871.605 | % 27 | % 27 |
| | Kuota likidoa positiboa duten aitorpenak | 5.282 | 236 | 22 | 234 | 5 | 99 | | | | 5.878 | 233.203.752 | % 12 | % 15 |
| 2010. urtea | Aitorpenak guztira | 15.987 | 448 | 98 | 324 | 5 | 214 | 45 | 5 | 10 | 17.136 | | | |
| | Oinarri likidagarriko aitorpenak | 5.872 | 289 | 50 | 208 | 5 | 111 | 29 | 4 | 7 | 6.577 | 1.346.657.799 | | |
| | Kuota osoa positiboa duten aitorpenak | 5.823 | 252 | 51 | 181 | 5 | 96 | 29 | 4 | 7 | 6.448 | 368.289.203 | % 27 | |
| | Kuota likidoa positiboa duten aitorpenak | 4.919 | 226 | 35 | 175 | 5 | 78 | 28 | 3 | 5 | 5.474 | 211.651.281 | % 16 | |

* Nafarroako ereduaren kontzeptuak erabili dira, dagozkion berdinketak eginda.

1.B taulan oinarri likidagarriaren, kuota osoaren eta kuota likidagarriaren zenbatekoak bereizten dira, aitorpen motaren arabera.

1.B. taula

| | | 2008 | | | 2009 | | | 2010 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Oinarri likidagarria | Kuota osoa | Kuota likidoa | Oinarri likidagarria | Kuota osoa | Kuota likidoa | Oinarri likidagarria | Kuota osoa | Kuota likidoa |
| Nafarroa | Banakakoa | 1.561 | 433 | 287 | 1.063 | 272 | 165 | 907 | 250 | 154 |
| | Kooperatibak | 70 | 7 | 1 | 47 | 5 | 1 | 35 | 4 | 1 |
| | Taldeak | 155 | 47 | 8 | 146 | 44 | 7 | 178 | 53 | 20 |
| Estatua | Banakakoa | 100 | 27 | 22 | 60 | 18 | 15 | 51 | 13 | 11 |
| | Kooperatibak | 11 | 2 | 0 | 2 | 0 | 0 | 2 | 0 | 0 |
| | Taldeak | 319 | 93 | 33 | 558 | 163 | 45 | 161 | 44 | 23 |
| EAE | Banakakoa | | | | | | | 8 | 2 | 2 |
| | Kooperatibak | | | | | | | 1 | 0 | 0 |
| | Taldeak | | | | | | | 4 | 1 | 0 |
| | Guztira | 2.216 | 610 | 352 | 1.876 | 502 | 233 | 1.347 | 368 | 212 |

* Euroak, milioitan

Taula horietatik ondoriozta daitekeenez, aldi horretan ikusi da:

1.1. Aitorpena aurkeztu duten sozietate kopuruak eta kuota eta oinarri positiboak dituztenen kopuruak behera egin duela.

1.2. Nabarmen murriztu dela kuoten zenbatekoa. Era horretara, kuota likidoa 352 milioitik 212 milioira jaitsi da, hau da, ehuneko 39.

1.3. Aitorpen guztiak hartuta, zerga-oinarri positiboa duten sozietateen kopurua ehuneko 44tik 38ra igaro da 2008-2010 urteetan, eta kuota likido positiboak dituzten sozietateen kopurua, berriz, ehuneko 37tik 32ra.

1.4. Zerga-oinarri positiboa duten enpresen ehuneko 84k kuota likido positiboa dute.

1.5. Denbora horretan batez besteko zerga-tasa ehuneko 27koa da, eta batez besteko tasa efektiboa ehuneko 15ekoa. Horrek esan nahi du kuota likidoa kuota osoaren ehuneko 56 dela. Edo, beste era batera esanda, kuota osoari buruzko kenkariek kuota horren ehuneko 44 osatzen dutela.

2. 2. taulan aitorpen mota bakoitzean kuota osoak eta kuota likidoak oinarri likidagarriari buruz hartzen duten ehunekoa azaltzen da. 2008 eta 2009 urteetan, EAEko araudiaren arabera egindako aitorpenen datuak estatukoan sartuta daude; 2010ean, aldiz, bereizi egin dira. Gai horri dagokionez, kontuan hartu behar da oso aitorpen gutxi aurkezten direla azken araudi horren arabera.

| | | Nafarroa | | | Estatua | | | EAE | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Banakakoa | Kooperatibak | Taldeak | Banakakoa | Kooperatibak | Taldeak | Banakakoa | Kooperatibak | Taldeak |
| | Kuota osoaren ehunekoa/oinarri likidagarria | 28 | 10 | 30 | 27 | 22 | 29 | | | |
| 2008 | Kuota likidoaren ehunekoa/oinarri likidagarria | 18 | 2 | 5 | 22 | 4 | 10 | | | |
| | Kuota likidoaren ehunekoa/oinarri likidagarria zuzenduak zerga-ezarpen bikoitzagatik | 21 | | 9 | | | | | | |
| | Kuota osoa ehunekoa/oinarri likidagarria | 26 | 10 | 30 | 30 | 20 | 29 | | | |
| 2009 | Kuota likidoaren ehunekoa/oinarri likidagarria | 15 | 1 | 5 | 25 | 2 | 8 | | | |
| | Kuota likidoaren ehunekoa/oinarri likidagarria zuzenduak zerga-ezarpen bikoitzagatik | 18 | | 6 | | | | | | |
| | Kuota osoa ehunekoa/oinarri likidagarria | 28 | 11 | 30 | 25 | 20 | 27 | 28 | 28 | 28 |
| 2010 | Kuota likidoaren ehunekoa/oinarri likidagarria | 17 | 2 | 11 | 21 | 11 | 14 | 28 | 1 | 10 |
| | Kuota likidoaren ehunekoa/oinarri likidagarria zuzenduak zerga-ezarpen bikoitzagatik | 19 | | 15 | | | | | | |

Hauek dira aurreko datuetatik ateratzen diren ondorioak:

2.1. Enpresa-taldeen tasa efektiboa enpresa indibidualena baino nabarmen txikiagoa da.

2.2. Kooperatiben tasa efektiboa, 2010. urtean izan ezik –estatuko araudiaren arabera aitortu zirelako–, ehuneko bikoa da, gutxi gorabehera.

2.3. Batez besteko tasa efektiboak, oro har, nafar enpresetan txikiagoak dira zergak Nafarroan ordaintzen dituzten estatuko enpresetan baino, nahiz eta azpimarratu beharra dagoen alde nabarmena dagoela kopuruan eta azken horiek oso gutxi direla estatuko enpresa guztiekin alderatuta.

2.4. Tasa efektiboa, gutxi gorabehera, hiru puntu igo da, ezarpen bikoitzaren ondoriozko zuzenketekin kalkulatzen badugu.

3. 3. taulan aitorpen mota bakoitzak kuota likidoari buruz hartzen duen ehunekoa azaltzen da.

| | Nafarroa | | Estattua | | EAE | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Urtea | Banakakoa | Taldeak | Banakakoa | Taldeak | Banakakoa | Guztira |
| 2008 | 82 | 2 | 6 | 10 | - | 100 |
| 2009 | 71 | 3 | 7 | 19 | - | 100 |
| 2010 | 73 | 10 | 5 | 11 | 1 | 100 |

Datu horietatik ondorioztatzen denez, zergak Nafarroako araudiaren arabera ordaintzen dituzten taldeen aitorpenen kuota likidoaren zama nabarmen handitu da. Estatuko araudiaren araberako aitorpenetan, berriz, 2009. urtean nabarmen igo da taldeen zama, baina 2010. urtean behera egin du.

**V.2.2. Nafarroako araudiaren arabera aitortzen duten banakako enpresen kuoten azterketa**

Une horretatik aurrera, azterketak Nafarroako araudiaren arabera arautzen diren enpresei baino ez dagozkie, sozietate horietan eragiten baitute Nafarroako legeek.

4. 4.1 taulan azaltzen dira urtez urte eta kuota osoa positiboa duten aitorpenen tarteen arabera horien kopurua eta kuota osoaren zenbatekoa; ordainketa bikoitzengatiko eta hobariengatiko kenkariak; inbertsioengatiko kenkariak eta enpleguaren sorkuntza; eta kuota likidoa.

## 4.1. taula.

| 2008 | | | Kenkariak guztira | | Kenkariak guztira | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Tarteak | Kuota osoa | Aitorp. Kop. | Ordainketa bikoitza | Aitorp. Kop. | Inbertsioak eta Enplegua | Aitorp. Kop. | Kuota likidoa | Aitorp. Kop. |
| > 25.000.000 | 25.629.797 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 10.000.000-25.000.000 | 33.997.926 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 44.019.380 | 3 |
| 5.000.000-10.000.000 | 31.239.429 | 5 | 14.707.509 | 2 | 5.765.334 | 1 | 13.628.622 | 2 |
| 1.000.000-5.000.000 | 112.708.874 | 58 | 21.908.321 | 12 | 17.733.072 | 8 | 71.028.131 | 37 |
| 300.000-1.000.000 | 79.180.090 | 149 | 11.198.098 | 22 | 15.865.756 | 32 | 49.465.047 | 94 |
| 200.000-300.000 | 23.973.274 | 99 | 6.017.998 | 25 | 5.302.395 | 22 | 15.177.750 | 63 |
| 100.000-200.000 | 38.421.990 | 274 | 3.985.404 | 30 | 8.541.720 | 62 | 26.566.598 | 191 |
| 50.000-100.000 | 32.688.178 | 467 | 3.137.255 | 44 | 6.259.789 | 90 | 22.349.606 | 320 |
| 10.000-50.000 | 41.997.635 | 1.830 | 1.959.096 | 75 | 14.888.981 | 697 | 33.407.590 | 1.482 |
| 10.000tik behera | 13.363.151 | 4.492 | 393.556 | 162 | 8.857.864 | 3.811 | 11.035.977 | 4.062 |
| Positiboak guztira | 433.200.343 | 7.378 | 63.307.237 | 372 | 83.214.911 | 4.723 | 286.678.701 | 6.254 |
| | | | | | | | | |
| 1.000.000tik gora | 203.576.027 | 67 | 36.615.830 | 14 | 44.666.557 | 63 | 128.676.133 | 42 |
| Ehunekoa positiboei buruz | % 47 | % 1 | % 58 | % 4 | % 54 | % 1 | % 45 | % 1 |

| 2009 | | | Kenkariak guztira | | Kenkariak guztira | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Tarteak | Kuota osoa | Aitorp. Kop. | Ordainketa bikoitza | Aitorp. Kop. | Inbertsioak eta Enplegua | Aitorp. Kop. | Kuota likidoa | Aitorp. Kop. |
| > 25.000.000 | 0,00 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 10.000.000-25.000.000 | 11.047.074 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 5.000.000-10.000.000 | 31.815.078 | 5 | 6.361.447 | 1 | 0 | 0 | 16.417.018 | 3 |
| 1.000.000-5.000.000 | 76.463.900 | 38 | 21.656.597 | 10 | 19.606.038 | 7 | 40.425.365 | 19 |
| 300.000-1.000.000 | 44.001.032 | 88 | 10.306.589 | 21 | 10.390.702 | 22 | 27.530.214 | 53 |
| 200.000-300.000 | 15.479.206 | 64 | 2.357.167 | 10 | 2.130.319 | 9 | 12.362.535 | 50 |
| 100.000-200.000 | 28.813.276 | 206 | 3.482.127 | 25 | 6.238.961 | 44 | 18.191.127 | 134 |
| 50.000-100.000 | 21.217.199 | 305 | 2.814.460 | 38 | 4.855.702 | 70 | 15.586.502 | 222 |
| 10.000-50.000 | 31.210.471 | 1.416 | 1.660.346 | 72 | 8.122.566 | 399 | 24.437.486 | 1.110 |
| 10.000tik behera | 11.484.629 | 4.076 | 420.549 | 147 | 6.647.924 | 3.208 | 9.563.498 | 3.691 |
| Positiboak guztira | 271.531.865 | 6.199 | 49.059.282 | 324 | 57.992.213 | 3.759 | 164.513.744 | 5.282 |
| | | | | | | | | |
| 1.000.000tik gora | 119.326.052 | 44 | 28.018.044 | 11 | 29.996.740 | 29 | 84.372.597 | 75 |
| Ehunekoa positiboei buruz | % 44 | % 1 | % 57 | % 3 | % 52 | % 1 | % 51 | % 1 |

| 2010 | | | Kenkariak guztira | | Kenkariak guztira | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Tarteak | Kuota osoa | Aitorp. Kop. | Ordainketa bikoitza | Aitorp. Kop. | Inbertsioak eta Enplegua | Aitorp. Kop. | Kuota likidoa | Aitorp. Kop. |
| > 25.000.000 | 0,00 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 10.000.000-25.000.000 | 15.070.963 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 11.215.006 | 1 |
| 5.000.000-10.000.000 | 28.747.206 | 5 | 5.096.089 | 1 | 5.998.465 | 1 | 12.309.125 | 2 |
| 1.000.000-5.000.000 | 74.187.729 | 40 | 17.680.256 | 8 | 15.690.673 | 8 | 32.954.934 | 18 |
| 300.000-1.000.000 | 40.136.985 | 77 | 8.438.288 | 18 | 7.269.834 | 15 | 30.566.243 | 52 |
| 200.000-300.000 | 14.681.597 | 61 | 1.938.951 | 7 | 2.013.511 | 9 | 10.508.162 | 43 |
| 100.000-200.000 | 19.727.733 | 144 | 2.244.740 | 18 | 6.310.733 | 44 | 12.571.515 | 91 |
| 50.000-100.000 | 18.483.998 | 264 | 2.056.095 | 29 | 4.510.721 | 64 | 12.948.938 | 182 |
| 10.000-50.000 | 28.507.052 | 1.258 | 1.606.034 | 67 | 8.987.088 | 424 | 22.242.543 | 997 |
| 10.000tik behera | 10.878.666 | 3.973 | 326.848 | 154 | 6.139.590 | 2.979 | 8.799.465 | 3.533 |
| Positiboak guztira | 250.421.929 | 5.823 | 39.387.300 | 302 | 56.920.615 | 3.544 | 154.115.930 | 4.919 |
| | | | | | | | | |
| 1.000.000tik gora | 118.005.898 | 46 | 22.776.345 | 9 | 28.958.971 | 24 | 87.045.307 | 73 |
| Ehunekoa positiboei buruz | % 47 | % 1 | % 58 | % 3 | % 51 | % 1 | % 56 | % 1 |
| | | | | | | | | |
| Guztira 2008-2010 | 955.154.137 | | 151.753.819 | | 198.127.739 | | 605.308.376 | |

Aurreko taulatik ondoriozta daitekeenez, oso enpresa gutxik dituzte ehuneko aipagarriak kuotei eta kenkariei dagokienez. 1.000.000tik gorako zenbatekoen tarteak kontuan hartzen baditugu, tarte horietan kokatzen diren enpresa kopuruei buruzko datuak eta kuoten zenbatekoei eta kenkariei buruz osatzen duten ehunekoa 4.2. taulan erakusten dira.

| | 2008 | | 2009 | | 2010 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | % | Enpresa kopurua | % | Enpresa kopurua | % | Enpresa kopurua |
| Kuota osoa | % 47 | 67 | % 44 | 44 | % 47 | 46 |
| Ordainketa bikoitzagatiko kenkaria | % 58 | 14 | % 57 | 11 | % 58 | 9 |
| Inbertsio eta enpleguagatiko kenkaria | % 54 | 63 | % 52 | 29 | % 51 | 24 |
| Kuota likidoa | % 45 | 42 | % 51 | 75 | % 56 | 73 |

4.1. 2009an kuotek nabarmen egin zuten behera, kuota osoaren ehuneko 37 eta kuota likidoaren ehuneko 43, 2008. urtearen aldean. 2010ean kuota horiek ehuneko zazpi egin zuten behera, gutxi gorabehera, 2009. urtearekin alderatuta.

4.2. 2008an, 42 sozietatek kuota likidoaren ehuneko 45 jarri zuten, eta kopuru horiek, hurrengo urteetan, 75 enpresetara igaro ziren eta kuotaren ehuneko 51ra 2009an eta 73 enpresetara eta kuotaren ehuneko 56ra 2010ean.

4.3. Denbora horretan, kenkariek kuota osoaren ehuneko 37 osatzen dute.

4.4. Inbertsioagatiko eta enpleguagatiko kenkariak 83 milioitik 2008an 57ra igaro ziren 2010ean, hau da, ehuneko 32 egin zuten behera. Kenkari horietatik, 2010ean, 24 enpresei dagokie ehuneko 51.

5. 5. taulan erakusten da 2008an kuota osoa milioi eurotik gorakoa zuten 67 enpresentzat kuoten zenbatekoek eta kenkariek 2008 eta 2010 bitartean izan duten bilakaera.

| | 2008 | | | | 2009 | | | | 2010 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Lauki zkia. | 63 | 19 | 29 | 40 | 63 | 19 | 29 | 40 | 63 | 19 | 29 | 40 |
| Kuota osoaren tartea 2008an | Kuota osoa | Ordainketa bikoitzagatiko kenkaria guzt. | Inbertsio eta enpleguagatiko kenkaria guzt. | Kuota likidoa | Kuota osoa | Ordainketa bikoitzagatiko kenkaria guzt. | Inbertsio eta enpleguagatiko kenkaria guzt. | Kuota likidoa | Kuota osoa | Ordainketa bikoitzagatiko kenkaria guzt. | Inbertsio eta enpleguagatiko kenkaria guzt. | Kuota likidoa |
| KO>1.000.000 | 203.643.773 | 37.597.594 | 31.150.685 | 134.895.494 | 102.432.772 | 24.737.212 | 20.501.214 | 57.194.347 | 105.511.366 | 21.664.663 | 19.951.543 | 63.895.160 |
| | % 47 | % 59 | % 37 | % 47 | % 38 | % 50 | % 35 | % 35 | % 42 | % 55 | % 35 | % 41 |

2008an, 67 sozietatek egin zuten kuota osoaren eta likidoaren ehuneko 47ari dagokion ekarpena, 204 eta 135 milioirekin hurrenez hurren, eta 2010ean kuoten ehuneko 42 eta 41eko ekarpena egin zuten, 106 eta 64 milioiko kuotekin.

**V.2.3. Nafarroako araudiaren arabera aitortzen duten banakako enpresa-taldeen kuoten azterketa**

6. 6. taulan azaltzen dira urtez urte eta tarteen arabera kuota osoari dagozkion aitorpenak eta zenbatekoa; ordainketa bikoitzagatiko eta hobariengatiko kenkariak; inbertsioengatiko kenkariak eta enpleguaren sorkuntza; eta kuota likidoa.

6. taula

2008. urtea

| Lauki zkia. | 18 | | 19 | | 29 | | 40 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kuota osoa | Aitorp. Kop. | Ordainketa bikoitza | Aitorp. Kop. | Inbertsioak eta enplegua | Aitorp. Kop. | Kuota likidoa | Aitorp. Kop. |
| > 5.000.000 | 28.765.511 | 1 | 17.049.090 | 1 | 11.716.421 | 1 | 0 | 0 |
| 1.000.000-5.000.000 | 8.891.530 | 6 | 0 | 0 | 2.201.767 | 1 | 1.921.316 | 1 |
2.122 milioi horiek betearazteko, aurrekontuek 947 kontusail baliatzen dituzte, eta horietatik 149k ez dute aitortutako betebeharrik. 149 kontusail horien hasierako aurrekontua 35 milioikoa zen, baina 30 milioiko aldaketak izan dituzte; beraz, behin betiko aurrekontua eta bete gabekoa bost milioikoa da. Aurrekontu-betearazpena duten 798 kontusailetatik, 104 parlamentuaren zuzenketa bidez sartu dira eta 154 milioiko aitortutako betebeharren zenbatekoa osatzen dute. Beste zazpi

kontusail daude zuzenketa bidez sartuak eta aurrekontu-betearazpenik gabeak.

Oso kontzeptu gutxik dute kopuru aipagarririk 2.122 milioi horien barruan. Era horretara:

| Kontzeptua | Milioiak |
|---|---|
| Estatuarekiko Hitzarmena | 505 |
| Zerga-onurak | 322 |
| Tokiko erakundeentzako Transferentzia Arrunten Funts Orokorra eta Iruñeko Hiriburutza Gutuna | 184 |
| Botiken errezetak | 166 |
| Hezkuntzako itunak | 122 |
| NUP Finantzaketa | 60 |
| Tokiko inbertsio-plana | 53 |
| Guztira | 1.412 |

Kontusailei erreparatzen badiegu, honakoa ikusiko du:

• 20 handienek aurrekontu-betearazpenaren ehuneko 70 osatzen dutela

• 50.000 euroko aitortutako betebeharrak edo txikiagoak 205era iristen direla eta 4,9 milioiko betearazpena dutela.

Sailkapen ekonomikoen ikuspegitik, transferentziak, bai arruntak bai kapitalekoak, era honetara sailkatzen dira:

• Estatuko administrazioari.

• Fundazioei.

• Enpresa publikoei.

• Toki-entitateei.

• Enpresa pribatuei.

• Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei.

Enpresa pribatuei eta familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei egindako transferentziak kontuan hartuta egin da lan hau; 1.140 milioiko betearazpena osatzen dute, hau da, transferentzia guztien ehuneko 54.

1.140 milioi horiek era honetara banatzen dira:

| Artikulu ekonomikoa | Kontzeptua | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 47 | Transferentzia arruntak enpresa pribatuei | 92.923.789 |
| 48 | Transferentzia arruntak familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei | 584.028.646 |
| 77 | Kapital-transferentziak enpresa pribatuei | 239.323.413 |
| 78 | Kapital-transferentziak familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei | 223.408.884 |
| | Guztira | 1.139.684.732 |

Transferentzien aurrekontu-betearazpenak azken urteetan izan duen bilakaera taula hauetatik ondorioztatzen da. Lehenengoan, guztizko betearazpenari dagozkion zenbatekoak, transferentziei dagozkienak eta enpresa pribatuei, familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei dagozkienak aurkezten dira. Bigarrenean, erakunde pribatuei egindako transferentzien bilakaera aurkezten da, zehaztasun handiagoz.

| | Aitortutako betebeharrak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2010, 2007 gain. |
| Guztira | 4.294.301.263 | 4.402.455.479 | 4.372.679.838 | 4.301.248.628 | % 0,16 |
| Transferentziak guztira (4+7) | 2.370.428.454 | 2.367.619.234 | 2.267.551.952 | 2.122.676.805 | % -10,45 |
| % transferentziak/betearazpena | % 55 | % 54 | % 52 | % 49 | |
| 4 Transferentzia arruntak | 1.665.216.741 | 1.696.240.088 | 1.642.899.559 | 1.547.407.417 | % -7,07 |
| 7 Kapital-transferentziak | 705.211.713 | 671.379.146 | 624.652.393 | 575.269.388 | % -18,43 |
| Guztira 47,48,77 eta 78 | 1.191.341.002 | 1.164.012.518 | 1.187.320.572 | 1.139.684.732 | % -4,34 |
| % transferentziak pribatuei/transferentziak guztira | % 50 | % 49 | % 52 | % 54 | |

| | Aitortutako betebeharrak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 47,48, 77 eta 78 artikuluak | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2010, 2007 gain. |
| 4700 Transf. arrunt. nekaz. eta abel. enpresei | 18.653.661 | 20.477.754 | 20.713.052 | 23.190.790 | % 24,32 |
| 4701 Transf. arrunt. merkat. eta inds. enpresei | 2.369.889 | 2.642.151 | 2.797.403 | 2.799.070 | % 18,11 |
| 4709 Transf. arrunt. beste enpr. prib. | 48.091.194 | 68.203.065 | 60.626.641 | 66.933.929 | % 39,18 |
| 4800 Transf. arrunt. ikasle partik. | 7.756.841 | 9.613.430 | 5.442.187 | 5.413.928 | % -30,20 |
| 4802 Laguntza pentsioak | 180.431 | 142.517 | 76.878 | 39.413 | % -78,16 |
| 4809 Transf. arrunt. fami. eta beste part. | 350.835.202 | 336.886.095 | 363.631.684 | 353.125.129 | % 0,65 |
| 4811 Transf. arrunt. ikast. ez uniber. | 108.918.812 | 117.899.680 | 122.671.381 | 122.158.257 | % 12,16 |
| 4812 Transf. arrunt. fakult. eta eskol. Unib. | 3.016.335 | 3.155.704 | 5.546.033 | 5.311.138 | % 76,08 |
| 4816 Transf. arrunt. kultur. eta art. erakund. | 6.842.071 | 7.662.969 | 8.047.243 | 8.475.028 | % 23,87 |
| 4819 Transf. arrunt. irabazi asm. gab. erakundeei | 89.526.963 | 82.512.332 | 88.939.394 | 89.505.753 | % -0,02 |
| 7700 Kap. transf. nekaz. eta abel. enpresei | 26.314.311 | 30.846.669 | 29.636.835 | 40.978.747 | % 55,73 |
| 7701 Kap. transf. merkat. eta inds. enpresei | 75.957.478 | 73.493.625 | 60.714.373 | 53.329.692 | % -29,79 |
| 7709 Kapit. Transf. beste enpr. prib. | 228.752.129 | 194.266.746 | 191.411.785 | 145.014.975 | % -36,61 |
| 7800 Kap. transf. fam. eta partik. | 202.055.992 | 191.678.181 | 203.764.792 | 200.005.932 | % -1,01 |
| 7809 Kap. transf. beste fam. | | | 100.000 | 4.996 | |
| 7811 Kapit. transf. ikast. ez uniber. | 125.000 | 1.049.929 | 1.449.191 | 1.522.992 | % 1118,39 |
| 7816 Kap. transf. kultur. eta art. erakund. | 191.505 | 275.421 | 409.851 | 1.260.000 | % 557,95 |
| 7819 Kapit. transf. irab. asm. gab. erakundeei | 21.753.187 | 23.206.252 | 21.341.849 | 20.614.963 | % -5,23 |
| Artikuluak guztira 47, 48, 77 eta 78 | 1.191.341.002 | 1.164.012.518 | 1.187.320.572 | 1.139.684.732 | % -4,34 |

Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legeak laguntza horiek emateko esparruaren izaera orokorra arautzen du, nahiz eta hainbat foru agindu eta ebazpen dauden laguntza mota bakoitzarentzat araudi berezia zehazten dutenak.

### III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Txosten honen helburua da sektore publikotik enpresa pribatuetarako eta irabazi asmorik gabeko familia eta erakundeetarako transferentziak egiten direneko esparru orokorretara hurbilketa bat egitea. Zehazki, kontua ez da emateko prozedurak aztertzea, baizik eta horien bolumena, jarduera, transferentziak jasotzen dituzten erakundeen edo pertsonen kopurua, baliatutako aurrekontuko kontusailak, etab.

Lanak, beraz, 47., 48., 77. eta 78. Artikulu ekonomiei dagozkien kontusailen azterketan jarri du arreta, hau da, 2010eko ekitaldian enpresa pribatuetara eta irabazi asmorik gabeko familia eta erakundeetara egindako transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak.

Lana Nafarroako Gobernuaren kontularitza-sistemako kontularitza-erregistroetatik abiatuta egin da. Horri dagokionez, aipatu beharra dago transferentziaren edo diru-laguntzaren onuraduna, oro har, bat datorrela hori eskuratzen duenarekin edo kontularitzako hirugarrenarekin. Hori gertatzen ez denean, aurrekontuan onuradun motaren arabera egozten da, eta ez hartzailearen arabera. Hala gertatzen da, esate baterako, botikako gastuetan eta gaixoak lekualdatzeko laguntzetan. Kasu horietan, ordainketaren hartzaile materialak Botikaren Elkargoa, garraio enpresak eta bidaia-agentziak badira ere, azken onuraduna pertsona fisiko bat da, eta gastua 48. artikuluari egotzi behar zaio: "irabazi asmorik gabeko familiak eta erakundeak".

Diru-laguntza jakin bat hori betetzeko egokientzat hartzen den entitatearen izaeraren arabera kokatzen da artikulu baten barruan, hasiera batean, baina horrek ez du eragin baztertzailerik diru-laguntzaren helburu diren jarduerak egiteko gaitasun nahikoa duten beste entitate batzuen aurrean, nahiz eta sailkapen ekonomikoaren beste artikulu batzuei erantzun. Toki-erakundeen kasua da hori, izan ere, horien diru-laguntzak 46. artikuluaren barruan kokatzen dira, nahiz eta beren izaera dela eta 4810 azpikontzeptuko kontusailekin diruz lagundu daitezkeen jarduerak egin ditzaketen.

Hartzaile edo hirugarren kontagaiak hainbat ordainketa bidezko transferentzia bat jaso dezake, hori dela eta, kontabilitateko oharren kopurua hartzaileena baino handiagoa da.

Sektore publikoaren auditoriari dagokionez Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko eta Kontuen Ganbera honek bere fiskalizazio-eskuliburuan garaturiko printzipioei eta arauei jarraituz egin da lan hau, eta azterlanaren helburuen eta lanaren berezitasunaren arabera beharrezkotzat jotako egokitzapenak egin dira.

### IV. ONDORIO OROKORRAK

Hona hemen egindako lanetik ateratzen diren ondorio orokorrak:

• Entitate pribatuei, enpresei, familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei 2010eko ekitaldian egindako transferentzien laburpena taula honetan ikus daiteke:

1. taula: Transferentziak sektore pribatuari – 47-48-77-78 artikuluak

| Ekono-mikoa | Kontzeptua | Aitort. betebehar. 2010 ekitaldia | % Guztizk. gain. | Kontabilitateko ohar kop. | Hirugarren kop. | Aurrekontuko kontusail kop. | Departamentu kop. | % Guztizk. gain. 4 eta 7 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4700 | Transf. arrunt. nekaz. eta abel. enpresei | 23.190.789,97 | % 2,03 | 180 | 91 | 16 | 1 | |
| 4701 | Transf. arrunt. merkat. eta inds. enpresei | 2.799.070,37 | % 0,25 | 137 | 76 | 11 | 3 | |
| 4709 | Beste enpresa pribatu batzuei transf. arrunt. | 66.933.928,91 | % 5,87 | 3.148 | 1.453 | 39 | 9 | |
| | 47. art. azpit. transf. arrunt. enpresa pribatuei | 92.923.789,25 | % 8,15 | 3.465 | 1.620 | 66 | 13 | % 4,38 |
| 4800 | Transf. arrunt. ikasle partik. | 5.413.927,62 | % 0,48 | 613 | 273 | 15 | 3 | |
| 4802 | Laguntza-pentsioak | 39.413,18 | % 0,00 | 12 | 1 | 1 | 1 | |
| 4809 | Transf. arrunt. fami. eta beste part. | 353.125.129,18 | % 30,98 | 7.544 | 2.619 | 98 | 11 | |
| 4811 | Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeei transf. arrunt. | 122.158.256,99 | % 10,72 | 3.557 | 94 | 15 | 2 | |
| 4812 | Transf. arrunt. fakult. eta eskol. unib. | 5.311.138,28 | % 0,47 | 331 | 119 | 6 | 2 | |
| 4816 | Transf. arrunt. kultur. eta art. erakund. | 8.475.027,91 | % 0,74 | 89 | 32 | 24 | 2 | |
| 4819 | Transf. arrunt. irabazi asm. gab. erakundeei | 89.505.752,62 | % 7,85 | 4.199 | 1.365 | 209 | 11 | |
| | 48. art. azpit. familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei | 584.028.645,78 | % 51,24 | 16.345 | 4.503 | 368 | 32 | % 27,51 |
| 7700 | Kapit. transf. nekaz. eta abel. enpresei | 40.978.746,85 | % 3,60 | 783 | 431 | 16 | 1 | |
| 7701 | Merkataritza- eta industria-enpresei egindako kap. transf. | 53.329.691,60 | % 4,68 | 415 | 352 | 16 | 3 | |
| 7709 | Beste enpresa pribatu egindako kapital-transf. | 145.014.974,91 | % 12,72 | 1.453 | 1.035 | 25 | 5 | |
| | 77. art. azpit. kapit. transf. enpresa pribatuei | 239.323.413,36 | % 21,00 | 2.651 | 1.818 | 57 | 9 | % 11,27 |
| 7800 | Familiei eta partikularrei egindako kapital-transf. | 200.005.932,46 | % 17,55 | 24.176 | 22.156 | 11 | 5 | |
| 7809 | Beste familiei eta partikularrei egindako kapital-transf. | 4.995,72 | % 0,00 | 12 | 12 | 1 | 1 | |
| 7811 | Irakaskuntza ez-unibertsit. ikastetxeei kapital-trans. | 1.522.992,01 | % 0,13 | 61 | 51 | 2 | 1 | |
| 7816 | Kapital-transf. kultur. eta art. erakund. | 1.260.000,00 | % 0,11 | 3 | 1 | 1 | 1 | |
| 7819 | Transf. arrunt. irabazi asm. gab. erakundeei | 20.614.963,46 | % 1,81 | 378 | 189 | 35 | 6 | |
| | 78. art. azpit. familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei | 223.408.883,65 | % 19,60 | 24.630 | 22.409 | 50 | 14 | % 10,52 |
| | 47-48-77-78 artikuluak guztira | 1.139.684.732,04 | % 100,00 | 47.091 | 30.350 | 541 | | % 53,69 |
| | 4 eta 7 kapit. guztira | 2.122.676.804,98 | | | | | | % 100,00 |

Datu horien arabera:

a) 44., 47., 77. eta 78. artikuluetan, gastuek 1.140 milioi osatzen dituzte eta transferentzia guztien ehuneko 54 osatzen dute. Transferentzia horiek 47.091 ohar sortu dituzten kontabilitate-sisteman eta aurrekontuko 541 kontusail eta kontabilitateko sistemako 30.350 hirugarreni eragiten die. Hirugarrenak daudenez hainbat artikulutan, benetako zenbakia 29.211koa da.

b) 48. artikuluak, transferentzia arruntak familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei, 584 milioirekin, artikulu horien gaineko ehuneko 51 hartzen du eta transferentzia guztien gaineko ehuneko 28.

2. taulan transferentziak aztertzen ditugu, hirugarren onuradunen zenbateko tarteen arabera.

| Tarteak - Euroak | Hiruga-rrenak | hirugarren % guztizk. gain. | Zenbat. tart. | % zenbat. guztizkoaren gain | Metatutako zenbat. % | Batez besteko zenbatekoa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| > 300.000.000 | 1 | % 0 | 322.000.560 | % 28,25 | % 28,25 | 322.000.560 |
| 100.000.001etik 300.000.000ra | 1 | % 0 | 164.912.768 | % 14,47 | % 42,72 | 164.912.768 |
| 50.000.001etik100.000.00 0ra | 2 | % 0 | 168.276.085 | % 14,77 | % 57,49 | 84.138.043 |
| 1.000.001etik 50.000.000ra | 68 | % 0 | 245.043.964 | % 21,50 | % 78,99 | 3.603.588 |
| 500.001etik 1.000.000ra | 82 | % 0 | 57.415.327 | % 5,04 | % 84,03 | 700.187 |
| 100.001etik 500.000ra | 393 | % 1 | 83.468.348 | % 7,32 | % 91,35 | 212.388 |
| 50.001etik 100.000ra | 368 | % 1 | 26.150.293 | % 2,29 | % 93,65 | 71.061 |
| 25.001etik 50.000ra | 493 | % 2 | 17.312.346 | % 1,52 | % 95,16 | 35.116 |
| 1.001etik 25.000ra | 10.350 | % 35 | 47.625.557 | % 4,18 | % 99,34 | 4.602 |
| 501etik 1.000ra | 9.056 | % 31 | 5.880.645 | % 0,52 | % 99,86 | 649 |
| 301etik 500era | 2.253 | % 8 | 842.217 | % 0,07 | % 99,93 | 374 |
| 151tik 300era | 1.244 | % 4 | 251.037 | % 0,02 | % 99,96 | 202 |
| 51tik 150era | 4.765 | % 16 | 501.112 | % 0,04 | % 100,00 | 105 |
| 0tik 50era | 129 | % 0 | 4.473 | % 0,00 | % 100,00 | 35 |
| zero | 6 | % 0 | 0 | % 0,00 | % 100,00 | 0 |
| Guztizkoak | 29.211 | % 100 | 1.139.684.732 | % 100,00 | | |

Taulatik ondorioztatzen denez:

• Lau hirugarrenek zenbatekoaren erdia baino gehiago irudikatzen dute.

• 27.797 hirugarren, horietatik ehuneko 95 zenbatekoaren ehuneko bost dira.

• 17.453 hirugarrenek 1.000 eurotik beherako diru-laguntzak jasotzen dituzte.

Edonola ere, azpimarratu beharra dago “kontabilitateko hirugarrenak” direla. Era horretara, esate baterako, 300 milioitik gorako tartean, hirugarren bat dago kontularitzari dagokionez, baina zerga-onurei dagokie, eta zerga-aitorpenetan zerga-onurak aurkeztu dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiak hirugarren errealak dira. Gauza bera esan liteke bigarren tarteari buruz, zeinetan hirugarren baten barruan dauden hainbat onuradunen errezeta medikoen ordainketak.

• 3. taulan milioi bat eurotik gorako zenbatekoa duten hirugarrenak daude. Taula hobeto ulertzeko, berriro ere erreparatuko diogu transferentziaren onuradunaren eta hartzailearen edo hirugarrenen arteko aldeari, hori baita kontularitzan erregistratzen dena eta, beraz, txostenean aipatzen duguna. Era horretara, taula honi dagokionez egoera hauek bereizten dira:

a) Kontabilitatean agertzen den hirugarrena transferentziaren edo diru-laguntzaren azken har-

tzailea da. Hori da Ogasunaren aurrean eskubidearen titularra, eta aitortutako betebeharra ordaintzen duena.

b) Kontabilitatean agertzen den hirugarrena funtsen hartzailea da, baina ez da eskubidearen titularra edo betebeharraren aitorpena eragin duen egoera sortu duena. Diru-laguntzei buruzko Foru Legean bildutako erakunde laguntzaileen kasua da eta txostenean biltzen den zerrendan bada kasu bat, COGREMASArena, adibide on bat izan daitekeena, diruz laguntzen diren etxebizitzen errentaria delako. Eskubidearen titularra (alokairua murrizten zaiona diru-laguntza dagoelako) errentaria da, baina diru-laguntzaren hartzailea maizterra da. Botikarien Elkargoaren kasua ere antzekoa izango litzateke, osasun-txartelen titularren alde egindako errezetei dagokionez; horiei botikan egin zaie dagokion deskontua.

c) Hirugarrena fikziozkoa da eta hartzekodun ugari biltzen ditu, horiek direlarik funtsen benetako hartzaileak, Diruzaintzan egiten den eragiketaren bitartez, zeinaren arabera aitortutako betebeharraren zenbatekoa hainbat onuradunen artean banatzen den. “Banakako diru-laguntzen” kasua da hori, Politika Sozialeko diru-laguntzen ordainketak biltzen dituena, edo “Fasearte nomina hartzekoduna”, hitzartutako zentroetako langileen nominaren ordainketak biltzen dituena. Kasu batean zein bestean ordainketak banaka jasotzen ditu onuradunak, baina horien nortasuna ez da kontabilitatean agertzen, nahiz eta ordainketa-euskarriko fitxategietan agertzen den.

3. taula: 2010 ekitaldia – 47 – 48 – 77 – 78 artikuluak. SAPeko “Hirugarrenak” 1.000.000 eurotik gorako aitortutako betebeharrekin

| Hartzekodunaren izena | Zenbatekoa | Guztizk. gain.% | Metatutako % | SAP ohar kop. | Departamentu kop. | Kontusail kopurua uztira | Kap. 4 | Kap. 7 | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ekonomia eta Ogasun departamentua | 322.000.560 | % 28,25 | % 28,25 | 9 | 4 | 9 | 5 | 4 | Zerga-gastuak |
| Botikarien Elkargo Ofiziala | 164.912.768 | 14,47% | % 42,72 | 50 | 1 | 4 | 4 | 0 | Ekarpena Botikarien Elkargoari / Farmazia Prestazioak / Prestakuntza etengabea |
| Banakako prestazioak | 92.996.510 | % 8,16 | % 50,88 | 225 | 1 | 21 | 21 | 0 | Pents. Lag. PAS / Kotizazio gabeko pentsioak / LISMI pentsioak; ehuneko 0,7 PFEZ funtsa, gizarte bazterketa |
| Nomina Fasearte hartzekoduna | 75.279.576 | % 6,61 | % 57,49 | 157 | 1 | 2 | 2 | 0 | 4. dep. Nominak (24 ohar. bi kontusaili dagozk.) |
| Gizarte Segurantzako Lurralde Diruzaintza | 20.584.490 | % 1,81 | % 59,29 | 144 | 1 | 2 | 2 | 0 | Gizarte Segurantza – 4. Dept. |
| Modernotzeko laguntzak | 17.897.006 | % 1,57 | % 60,87 | 63 | 1 | 1 | 0 | 1 | Nekazaritz. Usti. Mondernotzeko laguntzak; SAP ohar bakoitza hainbat onurad. |
| Volkswagen Navarra, SA | 17.026.216 | % 1,49 | % 62,36 | 84 | 2 | 4 | 1 | 3 | Itzuli behar ez diren diru-laguntzak (15,7 mil.) / Krisiaren kontrako neur. (4 eta 7 kap.) eta beste bat I+G |
| Autopistas de Navarra SA | 15.429.138 | % 1,35 | % 63,71 | 12 | 1 | 1 | 1 | 0 | Audenasa. Merkataritza-politika |
| Tailer laguntzaileak | 11.724.024 | % 1,03 | % 64,74 | 55 | 2 | 6 | 4 | 2 | Tasubinsa: krisiaren kontrako neurrietarako 2 kontusail (4eta7) |
| Riegos de Navarra, SA | 10.162.418 | % 0,89 | % 65,63 | 30 | 1 | 3 | 0 | 3 | Ziurtagiriak daude (7. kap.), hainbat herri |
| Unión General de Trabajadores | 7.429.396 | % 0,65 | % 66,29 | 59 | 5 | 28 | 28 | 0 | Langileak trebatzeko ekintzak |
| Unión Sindical de Comisiones Obreras | 7.326.068 | % 0,64 | % 66,93 | 61 | 6 | 28 | 28 | 0 | Langileak trebatzeko ekintzak |
| CENER-CIEMAT Fundazioa. | 7.169.056 | % 0,63 | % 67,56 | 13 | 4 | 8 | 3 | 5 | Energia Berriztagarrien Zentroa |
| Nafarroako Unibertsitatea | 6.423.127 | % 0,56 | % 68,12 | 116 | 5 | 21 | 17 | 4 | Campus baimena, I + G, protesia, hitzarmenak |
| Instituto Navarro de Tecnologías e | 6.256.163 | % 0,55 | % 68,67 | 13 | 1 | 1 | 1 | 0 | Nafarroako Ubidearen ureztatze kanona |
| Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa | 6.042.791 | % 0,53 | % 69,20 | 34 | 2 | 16 | 16 | 0 | Hitzar. CEN / lanbide heziketa / lan arriskuen prebentzioa… |
| Navarra de Suelo y Vivienda, SAU | 5.527.488 | % 0,49 | % 69,68 | 147 | 2 | 3 | 1 | 2 | Enp. diru-lagun. galdarak; diru-laguntzak etxebizitza erosteko eta alokatzeko |
| Agrupación Española de Entidades | 5.235.531 | % 0,46 | % 70,14 | 17 | 1 | 1 | 1 | 0 | Nekazaritzako aseguru ordainketa |
| Kalte-ordain konpentsatzailea | 4.274.182 | % 0,38 | % 70,52 | 20 | 1 | 1 | 1 | 0 | Mendi eremua eta kaltetuak |
| Pablo Sarasate Fundazioa | 4.170.000 | % 0,37 | % 70,89 | 4 | 1 | 1 | 1 | 0 | Fundazioarekin Hitzarmena |
| Farmazia banatzailea | 4.091.552 | % 0,36 | % 71,24 | 15 | 1 | 1 | 1 | 0 | Xurgatz. erosketa |
| Vitra Parque del Arga SCL | 3.829.785 | % 0,34 | % 71,58 | 16 | 1 | 2 | 0 | 2 | BOE eta TOE erosketa |
| Fundación ASPACE Navarra | 3.364.473 | % 0,30 | % 71,88 | 67 | 2 | 8 | 5 | 3 | Aspace: Diru-lag. SS, CEE eta inb. - Krisiaren kontrako neurriak - … |
| Ikasketa Ertainetarako eta Unibertsitaterako Diru-laguntzak | 3.337.531 | % 0,29 | % 72,17 | 9 | 1 | 1 | 1 | 0 | Ordainketak 07/08, 08/09; 09/10 ikasturtea |
| ELKARKIDE SL | 3.122.761 | % 0,27 | % 72,44 | 86 | 2 | 11 | 7 | 4 | GS eta lanpostuei eustea |
| COGREMASA Activos Inmobiliarios SL | 3.109.584 | % 0,27 | % 72,72 | 6 | 1 | 2 | 1 | 1 | Etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak |
| Nekazaritza-ingurmeneko neurriak | 3.106.900 | % 0,27 | % 72,99 | 20 | 1 | 4 | 4 | 0 | Generikoa: nekazaritza-ingurmeneko laguntzak (estepakoak) |
| CETENA Fundazioa | 3.080.524 | % 0,27 | % 73,26 | 19 | 1 | 5 | 1 | 4 | I+G; Euroinnova |
| Nafarroako Unibertsitate Publikoa | 2.926.465 | % 0,26 | % 73,51 | 53 | 5 | 13 | 10 | 3 | Udako ikastaroak, Hitarmena; doktoretza aurreko eta ondorengo laguntzak; landareak… |
| Nafarroako Medicus Mundi | 2.690.743 | % 0,24 | % 73,75 | 5 | 1 | 2 | 2 | 0 | Medicus Mundi Programak / Nazioarteko garapenerako lankidetza |
| Mahnmac Delicatessen SL | 2.364.182 | % 0,21 | % 73,96 | 1 | 1 | 1 | 0 | 1 | Industrializazio eta merkaturatze inbertsioetarako diru-laguntzak |
| Lehenengo Instalazioa | 2.139.689 | % 0,19 | % 74,15 | 7 | 1 | 1 | 0 | 1 | Nekazari gazteen 1. Instalazioa; haibat onuradun (48 onur. 1 ohar) |
| Espainiako Gurutze Gorria | 2.139.495 | % 0,19 | % 74,33 | 51 | 5 | 23 | 20 | 3 | Hainbat hitzarmen eta programa eta % 0,7 PFEZ |
| Ultracongelados Virto SA | 2.117.627 | % 0,19 | % 74,52 | 7 | 2 | 5 | 1 | 4 | Industrializazio eta merkaturatze inbertsioetarako diru-laguntzak |
| Fundación Paz y Solidaridad | 2.015.039 | % 0,18 | % 74,70 | 15 | 2 | 3 | 3 | 0 | Nazioarteko garapenerako lankidetza eta huneko 0,7 funtsa PFEZ |
| Cederna Garalur Elkartea | 1.998.884 | % 0,18 | % 74,87 | 30 | 3 | 6 | 5 | 1 | (Toki Garap. Prog.) |
| Construcciones Zubillaga SA | 1.797.673 | % 0,16 | % 75,03 | 22 | 2 | 4 | 0 | 4 | Zaharb. Mº Oliva, San Pedro de la Rúa, Katedrala |
| Haritz Berri Fundazioa | 1.780.536 | % 0,16 | % 75,19 | 50 | 4 | 14 | 11 | 3 | Hezku. Hitzar. |
| Abeltzaintzaren sektoreari laguntzak | 1.728.380 | % 0,15 | % 75,34 | 2 | 1 | 1 | 1 | 0 | Abeltzaintza iraunkorra |
| Metalcomponentes MB Navarra SA | 1.718.392 | % 0,15 | % 75,49 | 6 | 1 | 4 | 1 | 3 | Inbertsio eta enpleguagatiko diru-laguntza, itzuli beharrik gabe |

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Liburuak erosteko laguntzak | 1.699.693 | % 0,15 | % 75,64 | 4 | 1 | 2 | 1 | 1 | Dohai. Testulib. hitzartua |
| Abokatuen Elkargoa | 1.669.258 | % 0,15 | % 75,78 | 12 | 1 | 1 | 1 | 0 | Transferentzia Elkargoa |
| Oteiza Jorge Fundazio Museoa | 1.541.031 | % 0,14 | % 75,92 | 10 | 1 | 3 | 2 | 1 | Bisitak; funtzion. gast. Inbert. Jorge Oteiza Museoa |
| Hartzekodunaren izena | Zenbatekoa | % Guztizk. gain. | Metatutako % | SAP ohar kop. | Departamentu kop. | Kontusail kopurua | | | Oharrak |
| | | | | | | Guztira | Kap. 4 | Kap. 7 | |
| Nasermo SL | 1.505.746 | % 0,13 | % 76,05 | 76 | 1 | 8 | 4 | 4 | Enplegu zentro bereziak |
| Universidad Sociedad Fundazioa | 1.490.191 | % 0,13 | % 76,18 | 53 | 2 | 5 | 5 | 0 | Univ-Soc. Fund.: Teknolog. Diru-lag., Diru-laguntzak |
| Proalder 101 SL | 1.483.934 | % 0,13 | % 76,31 | 4 | 1 | 1 | 0 | 1 | Proalderri erosteko aukerako alokairuaren sustap. diru-laguntza |
| Nekazaritza-jarduera aldez aurretik uztea | 1.474.978 | % 0,13 | % 76,44 | 24 | 1 | 1 | 1 | 0 | PDR FEADER |
| Amimet | 1.463.540 | % 0,13 | % 76,57 | 60 | 3 | 12 | 9 | 3 | Transferentzia arruntak enplegurako zentro bereziei |
| Inafre | 1.388.372 | % 0,12 | % 76,69 | 36 | 1 | 3 | 3 | 0 | Inafre |
| Alimentos y derivados de Navarra SA | 1.307.563 | % 0,11 | % 76,81 | 10 | 2 | 2 | 1 | 1 | Diru-lag. Industrializazioan eta merkataritzan inbertsioak egiteko/krisiaren kontrako neurr. Kontrat. Sustap. |
| Congregación S. Fco. de Sales Instituto | 1.283.226 | % 0,11 | % 76,92 | 66 | 2 | 10 | 10 | 0 | Salestarrak – Hainbat kontusail |
| Ikastaroak eta garraioa | 1.249.799 | % 0,11 | % 77,03 | 36 | 1 | 5 | 5 | 0 | Bekak eta laguntzak L.H 5 kontusail orokor: enplegua langabetuentzat – Bekak CENIFER? - Diru-lag. Enplegagarritasun ibilbideak – Ehungintz. Sektorea. Egok. - Enplegu Prest. FSE okup. |
| Acción contra el hambre Fundazioa | 1.224.122 | % 0,11 | % 77,14 | 7 | 1 | 1 | 1 | 0 | Nazioarteko garapenerako lankidetza |
| Iruñeko Udala | 1.196.833 | % 0,11 | % 77,24 | 11 | 2 | 6 | 4 | 2 | Eskola-tailerrak programa / Krisiaren kontrako neurriak (automobil elektrikoa sustatzea) |
| Minusbaliatu Fisikoen Elkartea | 1.171.608 | % 0,10 | % 77,34 | 53 | 1 | 7 | 4 | 3 | ADISCO |
| Santander Central Hispano | 1.170.650 | % 0,10 | % 77,45 | 7 | 1 | 1 | 1 | 0 | Diru-lag. Alok. BOE ** |
| UNEDen Nafarroako ikastetxe elkartua | 1.150.478 | % 0,10 | % 77,55 | 6 | 1 | 2 | 2 | 0 | Uned Iruñea |
| Fomento de centros de enseñanza SA | 1.147.152 | % 0,10 | % 77,65 | 97 | 1 | 8 | 7 | 1 | Hezkuntzako itunak |
| AN Avícola Mélida SA | 1.143.545 | % 0,10 | % 77,75 | 2 | 2 | 2 | 1 | 1 | Diru-laguntzak, inbertsioak eta lehiakortasuna |
| Ingurumeneko programak | 1.142.813 | % 0,10 | % 77,85 | 16 | 1 | 1 | 1 | 0 | Abeltzaintza ekologikoa, desagertzeko arriskuan diren arrazak. |
| Casamurchante SL promozioak | 1.127.382 | % 0,10 | % 77,95 | 3 | 1 | 1 | 0 | 1 | Erosteko aukera duten BOE, alokairuan. |
| Gupost Navarra SL | 1.126.080 | % 0,10 | % 78,05 | 47 | 1 | 4 | 2 | 2 | Transferentzia enplegurako zentro bereziei |
| UNEDen Zentro Elkartuaren partzuergoa | 1.123.145 | % 0,10 | % 78,15 | 9 | 1 | 3 | 3 | 0 | UNED: Iruñeko eta Tuterako zentroak |
| AMMA Navarra SLU | 1.119.537 | % 0,10 | % 78,24 | 15 | 2 | 2 | 2 | 0 | Farmazia-prestazioak |
| Gas Navarra SA | 1.100.000 | % 0,10 | % 78,34 | 1 | 1 | 1 | 0 | 1 | Gasifikazio Hitzarmena |
| Asociación de la Industria Navarra | 1.097.080 | % 0,10 | % 78,44 | 24 | 3 | 10 | 6 | 4 | Ohar orokorrak I+G; teknologia-zentroak |
| ID Médica España SA | 1.091.910 | % 0,10 | % 78,53 | 12 | 1 | 1 | 1 | 0 | Xurgatzaileak |
| Anfas | 1.088.852 | % 0,10 | % 78,63 | 45 | 3 | 14 | 14 | 0 | Ezgaitasuna; Anfas;… |
| Protesia, ortesia eta automobilak | 1.053.176 | % 0,09 | % 78,72 | 31 | 1 | 1 | 1 | 0 | Hamabostean behingo ordainketak protesiko |
| Jacinto Casajús Construcciones SL | 1.036.397 | % 0,09 | % 78,81 | 2 | 1 | 1 | 0 | 1 | Diru-laguntzak, laguntzak eta krisiaren kontrako neurriak |
| Teder Elkartea, Lizarra | 1.021.913 | % 0,09 | % 78,90 | 26 | 3 | 5 | 4 | 1 | Diru-laguntzak Enplegu Agenteak / Teder Turistikoa. |
| Alboan Fundazioa | 1.016.654 | % 0,09 | % 78,99 | 8 | 1 | 2 | 2 | 0 | Nazioarteko garapenerako lankidetza eta ehuneko 0,7 funtsa PFEZ |
| Canal 4 Navarra SL | 1.000.000 | % 0,09 | % 79,08 | 1 | 1 | 1 | 1 | 0 | Nafarroako ikus-entzunezko produkzioari laguntzak, Canal 4 |
| Komunikabideen argitaratzaile independentea | 1.000.000 | % 0,09 | % 79,17 | 1 | 1 | 1 | 1 | 0 | Nafarroako ikus-entzunezko produkzioari laguntzak, Canal 6 |
| Televisión Popular de Navarra SA | 1.000.000 | % 0,09 | % 79,25 | 1 | 1 | 1 | 1 | 0 | Nafarroako ikus-entzunezko produkzioari laguntzak Pamplona TV |
| | 903.233.378 | % 79,25 | | | | | | | |
| EA Artikuluak 47-48-77-78 | 1.139.684.732 | | | | | | | | |

## V. IRUZKINAK

Epigrafe honetan aurrekoaren ondorioetan sakonduko dugu, aurreko datuen informazioa eta ezagutza zabaltzeko aukera emango dute iruzkinen bitartez.

Horretarako, alderdi orokorrak aztertzen dira lehenbizi: aurrekontuko kontusail kopurua, hirugarrenen kopurua, transferentziak tarteen eta kode ekonomikoen arabera; eta bigarenik, transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak aipatzen dira.

Kasu guztietan aurkezten da betebehar aitortuen zenbatekoa, kontusailen eta hirugarrenen kopurua eta kontusail nagusiei, hirugarrenei edo kontzeptuei buruzko zenbait datu.

### V.1. OROKORRAK

#### V.1.1. Aurrekontuko kontusailen araberako transferentziak

Aurrekontuko 541 kontusail daude, guztira, sektore pribatuko transferentziei egotziak (47-48-77-78 artikuluak).

541 partida horietatik 61 parlamentuko zuzenketei dagozkie eta artikulu horietan aitortutako betebeharren (AB) ehuneko 5,10 osatzen dute; horietatik ehuneko 90,55 4. kapituluari dagokie eta ehuneko 9,45 7. kapituluari.

#### V.1.2. Hirugarrenen transferentziak

29.211 dira hirugarrenak guztira. Sei oharren gauzatzea zero da, egotzitako AB bat indargabetu egin baita; beraz, betearazpena duten “hirugarrenak” 29.205 dira.

“Hirugarrenen” zenbatekoa bereizita aztertuz gero, batzuk orokorrak direla eta “zerga-gastuei” , Gizarte Gaien Departamentuko hainbat laguntza, Nominak eta GSei dagozkiela ikusten da. (batez ere Hezkuntza Departamentuarenak). Zehazki, “zerga-gastuak” 322.000.560 eurora iristen dira, eta aurrekontuko bederatzi kontusaili dagozkien bederatzi ohar dira.

#### V.1.3. Transferentziak zenbatekoen tarteen arabera

Guztira 1.139.684.732 euroko diru-laguntzak, bai arruntak bai kapitalekoak, hartu dituzten 29.211 “hirugarrenak” (47-48-77-78. art.) 15 tartetan banatu ditugu.

Zenbatekoen arabera, zenbateko nagusia 300 milioitik gorakoa da, eta horretan zerga-gastuak 322.000.560 eurokoak izan dira, BAen ehuneko 28,25, “hirugarren” batean bilduta. Horren ondoren dago milioi 1etik 50 milioirako tartea, 68 “hirugarreni” dagokiena eta guztira 245.043.964 euro hartzen dituena, hau da, BAen ehuneko 21,50. 50 milioitik 100 milioirako tartean, bi “hirugarren” daude, 168.276.085 eurorekin guztira, BAen ehuneko 14,77, Gizarte Gaietako Departamentuko banakako prestazioei dagokiena, eta “nomina faseartea”, hezkuntzako hitzarmeneko nominei dagokiena. 100 milioitik 300 milioirako tartea “Botikarien Elkargoari” dagokio eta BAen ehuneko 14,47 osatzen du.

“Hirugarrenen” kopuruari dagokionez, 1.000 eurotik 25.000 eurorako tarteak horien ehuneko 35 osatzen du, nahiz eta zenbatekoa kontuan hartuta BAen ehuneko 4,18 baino ez duen hartzen. Horren ondoren 500etik 1.000 eurorako tartea dago, 9.056 “hirugarren” biltzen dituena eta BAen ehuneko 0,52 hartzen duena.

Kopuru txikiagoko tarteei dagokienez, sei “hirugarren” daude zero eurorekin, ezeztatutako aitortutako betebeharrei dagozkienak. “Zerotik 50 eurora” tartean, 129 “hirugarren” daude, 34,67 eurorekin batez beste; 51 eurotik 150 eurorako tartean 4.765 hirugarren daude, batez beste 105 eurorekin eta 151 eurotik 300 eurorako tartean 1.244 “hirugarren” daude, batez beste 202 eurorekin.

#### V.1.4. Kode ekonomikoengatiko transferentziak

48. artikuluak, “Transferentzia arruntak familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei”, 584.028.645 eurorekin, lau artikuluetan aitortutako betebeharren ehuneko 51 osatzen du (1.139.684.732 euro). Horri jarraitzen dio 77. artikuluak, “Kapital Transferentziak enpresa pribatuei”, 239.323.413 eurorekin (ehuneko 21) eta 78. artikuluak, “Kapital Transferentzia familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei”, 223.408.884 eurorekin (ehuneko 20). Azken lekuan dago 47. artikulua, “Transferentzia arruntak enpresa pribatuei”, 92.923.789 eurorekin (lau artikuluen ehuneko zortzi).

Zenbait kode ekonomikoren diru-laguntzak departamentu batek ematen ditu, eta beste batzuk batek baino gehiagok. 4809 eta 4819 kodeak dira aipagarriak, hamaika departamentuk ematen baitituzte, eta horren ondoren 4709 kodea dago, bederatzi departamentuk ematen dutena, eta 7819 kodea, seik ematen dutena.

Transferentzia horietarako kontularitzako 47.091 ohar daude.

### V.2. TRANSFERENTZIA ARRUNTEI BURUZ (47. ETA 48. ARTIKULUAK)

#### V.2.1. 4700 ekonomikoa "Kapital-transferentziak nekazaritzako enpresei"

Aitortutako betebeharrak 23.190.790 eurora iristen dira, eta 91 "hirugarreni" dagokie, horietako zenbait orokorrak. Bost "hirugarrenek" ekonomikoaren ehuneko 89 osatzen dute. Diru-laguntza guztiak Landa Garapeneko Departamentuak ematen ditu eta aurrekontuko 16 kontusaili dagokie.

Zenbatekoaren arabera, ehuneko 27 Nafarroako Ubidearen ureztatze kanonari dagokio, eta ehuneko 23, berriz, aseguru-sarien konpentsazioei.

ABen ehuneko 34 "nekazaritza-ingurumeneko neurriak eta ingurumeneko konpentsazioko kalte-ordaina, PDR FEADER".

"Hirugarren" bakar bati egozten zaio aurrekontuaren kontusail bat baino gehiago. Lau kontusaili egiten die, eta ehuneko 13,40 osatzen du.

#### V.2.2. 4701 Ekonomikoa "Transferentzia arruntak merkataritza-enpresei"

Aitortutako betebeharrak 2.799.070 eurora iristen dira, hamaika kontusailetatik datoz, eta 76 "hirugarreni" dagokie. Horietatik, 15ek BAen ehuneko 71 osatzen dute.

Departamentuz departamentu:

• Ehuneko 51 Herri Lanak, Garraioak eta Komunikazioak Departamentuaren kontusail bati dagokio, bidaiarientzako garraio-zerbitzuen mantentze-lanetarako.

• Ehuneko 43 Landa Garapen eta Ingurumeneko Departamentuari dagokio. Bederatzi kontusail dira, eta horietatik bi nabarmentzen dira: ehuneko 12 "Ereindako patata laborantza OPPOSAren bitartez sustatzea eta babestea" kontusaila eta ehuneko 14 "Kooperatibak berregituratzeko ekimenak sustatzea" kontusaila.

• Gainerako ehuneko 6 Enpresa Berrikuntzako Departamentuari dagokio, "Kontularitza, diagnostikoak eta ikastaroak" izeneko kontusailarekin.

Hirugarren bakar bat agertzen da aurrekontuko bi kontusailetan.

#### V.2.3. 4709 ekonomikoa "Transferentzia arruntak familiei eta beste enpresa pribatuei"

Aitortutako betebeharrak 66.933.928 eurora iristen dira, 39 kontusailetatik datoz eta 1.453 "hirugarreni" dagokie. Horietatik 21ek BAen ehuneko 80 osatzen dute eta hiruk ehuneko 53; zehazki, Audenasak ehuneko 23, Tasubinsak ehuneko 16 eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ehuneko 14 ("zerga-gastuak, enpleguaren sorrera").

Departamentuz departamentu. Diru-laguntza horiek bederatzi departamentuk ematen dituzte, eta horien artean azpimarratzekoak dira:

• Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua: ABen ehuneko 63 kudeatu du, hau da, 22 kontusail eta 1.390 "hirugarren". Aipatzekoa da enpleguko zentro berezietarako ehuneko 24, "enplegua sortzeagatiko zerga-gastuak" atalari ehuneko 14, eta ehuneko zortzi bereziki langabetuei zuzendutako lanbide heziketa. Ehuneko 11 "krisiaren kontrako neurriak" kontusailari dagokio.

• Herri Lanen Departamentua: ABen ehuneko 23 kudeatu du, Audenasarentzako "kontusail" bati dagokiona, haren merkataritza-politika dela eta.

• Gizarte Gaietarako Departamentua: ABen ehuneko zazpi kudeatu du, ezintasunak eta buruko gaixotasunak dituztenentzako lan-zentroei bideratuak bereziki, hitzarmenen bitartez Tasubinsa eta Elkarkiderekin.

21 "hirugarren" daude, hainbat departamentutako kontusailei egotziak; horietako hiruk hiru departamentu hauen diru-laguntzak jasotzen dituzte: Lehendakaritza, Berrikuntza eta Gizarte Gaiak.

#### V.2.4. 4800 Ekonomikoa "Transferentzia arruntak ikasle partikularrei"

Aitortutako betebeharrak 5.413.927 eurora iristen dira, 15 kontusailetatik datoz eta 273 "hirugarreni" dagokie. "Hirugarren" horietako hamaikek ABen ehuneko 90 hartzen dute. Zenbatekoen arabera orokor hauek nabarmentzen dira:

• "HE eta Unibertsitate mailakoentzako bekak", ehuneko 62,

• "Liburuak erosteko laguntzak", ehuneko hamar, eta

• "Unibertsitateko Z laguntzak", ehuneko hamar.

Departamentuz departamentu, ehuneko 96 Hezkuntza Departamentuak ematen ditu eta ehuneko 3 Kulturakoak.

• Hamabi "hirugarrenek" kontusail bati baino gehiagori egotzitako diru-laguntzak jasotzen dituzte. Zehazki, Hezkuntza Departamentuko bost kontusail daude "Unibertsitate Z. laguntzak" hirugarren orokorrari egotziak, hau da, ABen ehuneko 9,58, hartzen dutenak, bereziki hauei:

• Trukea atzerriko unibertsitateekin: Erasmus eta besteak (mugikortasuna)

• Krisiaren kontrako neurriak 19. Masterretan matrikulatzeko laguntzak langabetuentzat.

V.2.5. 4802 ekonomikoa "Laguntza-pentsioak"

Aitortutako betebeharrak 39.413 eurora iristen dira. Diru-laguntza horiek Gizarte Gaietako Departamentuari dagozkio, "Banakako laguntzak" hirugarren orokorrari eta "AZL laguntza pentsioak" aurrekontuko kontusailari.

**V.2.6. 4809 ekonomikoa "Transferentzia arruntak familiei eta beste"**

Aitortutako betebeharrak 353.125.129 eurora iristen dira. Diru-laguntza horiek 2619 "hartzekoduni" dagokie eta aurrekontuko 98 kontusaili.

Hiru "hirugarrenek" ABen ehuneko 92 osatzen dute; aipatzekoa da "Botikarien Elkargo Ofiziala", ABen ehuneko 47rekin.

98 kontusail hamaika departamentutan banatzen dira. Aipatzekoak:

• Osasun Departamentuak ABen ehuneko 51 eta 19 kontusail. "Farmaziako prestazioak" ehuneko 47 osatzen du.

• Gizarte Gaietako Departamentuak ABen ehuneko 41 eta 38 kontusail hartzen ditu. "Zerga-gastuak gizarte aurreik. Sist. Ekar." deituek ehuneko 12 osatzen dute.

4809 ekonomikoa egikaritzeko, 26 ohar dauden AZLko "hirugarrenik" gabe. Honako hauei dagozkie:

• "Farmaziako produktuak egoitzak": 219.693 euro.

• "Xurgatzaileak eta beste osasun produktu batzuk": 227.670 euro.

Kopuru horiek "Botikak" kontusaila aipatutakoetara egindako aldaketei dagokie, Nafarroako Gobernuak bere gain hartzen dituen botikei dagokienez; beraz, 2. ataleko kontusaila murriztuta gelditzen da 4. atalari egotzitako zenbateko horietan.

Kontusail horietako bederatzi parlamentuko zuzenketei dagozkie.

**V.2.7. 4811 ekonomikoa "Transferentzia arruntak ikastetxeei"**

Aitortutako betebeharrak 122.158.256 eurora iristen dira, aurrekontuko 15 kontusaili dagokie eta 94 "hirugarreni". ABen ehuneko 78 bi hirugarreni dagokie; zenbateko handienekoak ABen ehuneko 61 osatzen du eta "Fasearte hartzekodun nomina" orokorrari dagokio; ehuneko 17 "Gizarte Segurantzako Lurralde Diruzaintza Gizarte Aseguruak" atalari.

AB ia gehienak Hezkuntza Departamentuak esleitzen ditu (ehuneko 99,99) eta irakaskuntza pribatuarentzako diru-laguntzei dagokie:

• ehuneko 33 "Lehen Hezkuntza".

• ehuneko 16 "Haur Hezkuntza, 2. zikloa".

• ehuneko 15 "Bigarren Hezkuntza, 2. zikloa".

• ehuneko 13 "Bigarren Hezkuntza, 1. zikloa".

"Hirugarren" gehienak kontusail bati baino gehiagori egozten zaizkie.

**V.2.8. 4812 ekonomikoa "Transferentzia arruntak fakultate eta eskolei"**

Aitortutako betebeharrak, 5.311.138 eurokoak, sei kontusailetatik datoz eta SAPeko 119 hirugarreni dagozkie. 14 hartzekodunen ABek ehuneko 80 osatzen dute eta lehenengo hiruak ehuneko 56, hain zuzen ere: "UNED Iruñea", ehuneko 21, UNED Tutera, ehuneko 21, eta Nafarroako Unibertsitateak, ehuneko 14.

Departamentuz departamentu:

Hezkuntza Departamentuak ehuneko 85 ematen du, lau kontusailetan, eta horien artean nabarmentzen dira UNEDi (Iruñea eta Tutera) emandako ehuneko 37, eta ehuneko 32 "Prestakuntza Planerako laguntzak eta I+G laguntzak".

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ehuneko 15 ematen du, bi kontusailetan. Horietako gehienak "Bekak Nafarroa" sailari dagokio, 773.919 euroko zenbatekoarekin.

**V.2.9. 4816 Ekonomikoa "Transferentzia arruntak kultura erakundeei"**

Aitortutako betebeharrak 8.475.027 eurora iristen dira: 32 "hirugarreni" eta aurrekontuko 24 kontusaili (horietako bat betearazi gabe). Zazpi hirugarrenek ABen ehuneko 91 osatzen dute, eta zehazki horietako bik ehuneko 75 hartzen dute.

• Pablo Sarasate Fundazioak, ehuneko 49, eta

• Nafarroako Unibertsitateak, ehuneko 26.

Kode ekonomiko horri dagozkion diru-laguntzak bi departamentuk ematen dituzte. Kultura Departamentuak ABen ehuneko 72 ematen ditu eta Hezkuntzakoak, berriz, ehuneko 28. Hirugarrenetako batek diru-laguntza bat jasotzen du horietako bakoitzetik (Nafarroako Antzerki Eskola). Beste hirugarren batek, Nafarroako Unibertsitateak, Hezkuntza Departamentuko lau kontusailetatik jasotzen ditu diru-laguntzak.

Oro har, diru-laguntza izendunak dira.

**V.2.10. 4819 ekonomikoa "Transferentzia arruntak irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuei"**

Aitortutako betebeharrak 89.505.752 eurora iristen dira, 209 dirusailetatik datoz eta 1.365 "hirugarreni" dagokie. Zenbateko handieneko 28k ABen ehuneko 50 osatzen dute. Aipagarrienak hauek dira: UGT, ehuneko zortzi, CC.OO, ehuneko zazpi, eta Enpresaburuen Konfederazioa, ehuneko sei.

Kode ekonomiko horri egotzitako diru-laguntzak Nafarroako Gobernuko 11 departamentuk ematen dituzte (denak Toki Administrazioak izan ezik). Zenbatekoaren arabera, honako hauek dira nagusiak:

• Gizarte Gaietako Departamentua: ehuneko 42 eta aurrekontuko 60 kontusail (horietako hamabi, parlamentuko zuzenketa bidez). Aipatzekoa da "Garapenerako nazioarteko lankidetza" kontusaila, ekonomikoaren ehuneko 18 hartzen duena.

• Enpresaren Berrikuntzarako Departamentua, ehuneko 39 eta aurrekontuko 53 kontusail (horietako hiru, parlamentuko zuzenketa bidez). Aipatzekoa da "EGIF langileentzako lanbide prestakuntza", ekonomikoaren ehuneko 10 hartzen duena.

• Osasun Departamentua, ABen ehuneko 6 eta 23 kontusail (bi zuzenketa bidez).

V.3. KAPITAL-TRANSFERENTZIEI BURUZ (77. ETA 78. ARTIKULUAK)

**V.3.1. 7700 ekonomikoa "Kapital-transferentziak nekazaritzako eta abeltzaintzako enpresei"**

Aitortutako betebeharrak, 16 kontusailetatik datozenak, 40.978.746 eurora iristen dira. 783 ohar daude 431 "hirugarreni" dagozkienak. 17.897.005 euroko "hirugarren" orokor bat dago, ekonomikoaren ehuneko 25, ustiapenak modernizatzeko onuradunei dagozkienak. "Nafarroako Ureztatzeak" hirugarrenak ekonomikoaren ABen ehuneko 44 osatzen du.

Diru-laguntza guztiak Nekazaritza Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari dagozkie eta 16 kontusaili, horietan aipatzekoa da:

• ehuneko 52 "Nekazaritzako esplotazioen eraginkortasuna hobetzea. PDR Feader", eta

• Ekonomikoaren ehuneko 34 ureztatze berriak diruz laguntzeko eta daudenak hobetzeko hiru kontusaili dagokie, Nafarroa 2012 Plangintzaren barruko jarduerak.

**V.3.2. 7701 ekonomikoa "Kapital-transferentziak merkataritza-enpresei"**

Aitortutako betebeharrak, 16 kontusailetatik datozenak, 53.329.691 eurora iristen dira. 415 ohar daude, 352 "hirugarreni" dagozkienak. ABen ehuneko 50 zortzi "hirugarreni" dagokie. Batek ABen ehuneko 30 osatzen du. Hiru "hirugarrenek" departamentu batetik baino gehiagotatik jasotzen dute diru-laguntza, eta bostek departamentu beretik diru-laguntza bat baino gehiago jasotzen dute.

Departamentuz departamentu:

• ABen ehuneko 67 Berrikuntza Sailari, enpresa, dagokio. Departamentu horrek kudeatutako ehuneko 75 "inbertsio eta enpleguagatiko diru-laguntzak, itzuli beharrik gabe" atalari dagokio, eta ehuneko 13 "enpresa-inbertsioari".

• ABen ehuneko 33 Landa Garapeneko Sailari dagokio; departamentu horrek kudeatutako diru-laguntzen ehuneko 98 "nekazaritza industrializatzeko eta merkaturatzeko inbertsioetarako diru-laguntzak" atalari dagokio.

ABen ehuneko 31 Estatuak elkarrekin finantzatutako diru-laguntzei dagokio.

**V.3.3. 7709 ekonomikoa "Kapital-transferentziak beste enpresa pribatu batzuei"**

Aitortutako betebeharrak, 25 kontusailetatik datozenak, 145.014.974 eurora iristen dira. 1.453 ohar daude, 1.035 "hirugarreni" dagozkienak. Bada "hirugarren" orokor bat, Ekonomia eta Ogasun Departamentua, 115.882.430 eurorekin, ABen ehuneko 80 osatzen duena.

Departamentuz departamentu, ia guztia Berrikuntza, Enpresa eta Enplegua Departamentuari dagokio: ABen ehuneko 99 eta aurrekontuko 19 kontusail. Gainerakoa Osasuna, Herri Lanak, Landa Garapena eta Kultura departamentuetako zenbait kontusaili dagokio.

Berrikuntzako Departamentuko kontusailen artean, ekonomikoaren ehuneko 70 "Zerga-gastuak, enpresa-inbertsioa" kontusailari dagokio, ehuneko hamar "Zerga-gastuak inbertsioa I+G+Bn" kontusailari eta ehuneko 11 "Diru-laguntzak enpresei I+G+B, patenteak eta bideragarritasun azterketetarako" kontusailari. Departamentu horretako hiru kontusail "krisiaren kontrako neurriak" atalekoak dira.

**V.3.4. 7800 ekonomikoa "Kapital-transferentzia familiei"**

Aitortutako betebeharrak 200.005.932 eurora iristen dira, 24.176 oharri dagokie eta bost departamentutako aurrekontuko hamaika kontusaili.

Zenbateko hori 22.156 “hirugarreni” dagokie.

“Hirugarren” horietatik 54 baino ez dira 100.000 eurotik gorakoak, eta 115.882.430 euro batzen dituzte (ABen ehuneko 77). Hirugarren orokorrak (Ekonomia eta Ogasun Departamentua) 130.746.869 euro osatzen du (ehuneko 65).

Departamentuz departamentu, ehuneko 93 Etxebizitza Departamentuak ematen ditu, hiru kontusailetan (ehuneko 65 “zerga-gastuak ohiko etxebizitzan inbertitzeko” eta ehuneko 28 “diru-laguntzak, laguntzak eta krisiaren kontrako neurriak etxebizitzaren alorrean jarduteko”).

Ehuneko zazpi Industriako Departamentuak ematen ditu, bost kontusailetan.

**V.3.5. 7809 ekonomikoa “Kapital-transferentziak beste familia batzuei”**

Aitortutako betebeharrak, kontusail batetik datozenak, 4.995 eurora iristen dira, kontabilitateko 12 oharretan.

“Consumópolis 5 2010” kontsumo arduratsurako eskola-lehiaketa da, Kontsumo Institutu Nazionalak eta Autonomia Erkidegoek 2009-2010 ikasturterako egindako deialdia “Eta zu zertan zabiltza?

**V.3.6. 7811 ekonomikoa “Kapital-transferentzia ikastetxeei”**

Aitortutako betebeharrak 1.522.992 eurora iristen dira. 61 ohar daude 51 “hirugarreni” dagozkienak.

Diru-laguntza horiek Hezkuntza Departamentuak ematen ditu, eta gastuen aurrekontuaren bi kontusail hauei egozten zaizkie:

• “Sare hitzartuan IKT jartzeko diru-laguntza” 355.886 eurokoa (ehuneko 23), eta

• “Testu-liburuen doakotasuna”, 1.167.105 euro (ehuneko 77).

“Hirugarrenetatik” zortzi aurrekontuko bi kontusail horiei egozten zaizkie.

**V.3.7. 7816 Ekonomikoa “Kapital-transferentziak kultura-erakundeei”**

Aitortutako betebeharrak 1.260.000 eurora iristen dira. Hiru ohar daude Hezkuntza Departamentuaren “Nafarroako Unibertsitatea Bikaintasun Campusa. Hitzarmena Ministerioarekin” kontusailari dagokienak.

Kopuru hori Nafarroako Gobernuak jaso du Ministeriotik, interesik kanpoko mailegua kontzeptuan, eta 15 urteko amortizazio-epearekin, gabeziako hiru barne.

V.3.8. 7819 ekonomikoa “Kapital-transferentziak irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuei”

Aitortutako betebeharrak 20.614.963 eurora iristen dira, 35 dirusailetatik datoz eta 189 “hirugarreni” eta kontabilitateko 378 oharri dagokie. Zenbateko handieneko hamar hirugarrenek aitortutako betebeharren ehuneko 81 osatzen dute, horietako bat ehuneko 34ra iristen da (Cener-Ciemat Fundazioa).

Departamentuz departamentu, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegua Departamentuak ABen ehuneko 60 osatzen du, ondoren Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua (ehuneko 18), eta, azkenik, Kultura eta Turismo Departamentua (ehuneko 16).

Hogeita hiru hirugarren daude gutxienez bi kontusaili egozten zaizkien dirusailak jasotzen dituztenak, eta lau hirugarrenek jasotzen dituzten diru-laguntzak departamentu batetik baino gehiagotik.

Txosten hau eman da indarrean den araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñea, 2012ko urriak 23

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950